

Euskal Autonomia Erkidegoko **parte-hartze** **kulturalari** buruzko inkesta

Kulturaren
Euskal Behatokiaren
Estatistika eta Azterketa
Bilduma **81**

Emaiten txostena **2024**



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia:	2025eko apirila
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
Internet:	www.euskadi.eus
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Koordinazio teknikoa:	ICC-Consultors Culturals, SL
Landa-lana:	SIADeco, S.COOP.L
Diseinua eta maketazioa:	TheNiu
ISBN:	978-84-457-3814-6

Euskal Autonomia Erkidegoko **parte-hartze kulturalari** buruzko inkesta

Emaizen txostena



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Edukien aurkibidea

Aurkezpena	11
O1. Laginaren ezaugarriak	12
O2. Kulturarekiko jarrera orokorrak	16
02.1. Kulturari eskaintzen zaion denbora	16
02.2. Kulturarekiko jarrerak eta oztopo kulturalak	18
02.3. Kultura eskaintzari buruzko informazio-maila.....	22
02.4. Parte-hartze kulturalerako motibazioak	24
O3. Parte-hartze kulturala hartzaile gisa	31
03.1. Arte eszenikoak eta musika.....	31
3.1.1. Ikuskizun eszenikoetara joatea	31
3.1.2. Antzerkira joatea	32
3.1.3. Dantza-ikuskizunetara joatea	34
3.1.4. Kontzertuetara joatea	35
3.1.5. Grabatutako musika entzuteko maiztasuna	36
3.1.6. Zuzeneko beste ikuskizun batzuk.....	38
03.2. Ikus-entzunezkoak.....	40
3.2.1. Zinemara joatea.....	40
3.2.2. Bideojokoak	42
03.3. Irakurtzea.....	46
3.3.1. Liburuak	46
3.3.2. Liburutegira joatea.....	50
03.4. Hedabideak.....	55
3.4.1. Egunkariak eta aldizkariak	55
3.4.2. Telebista eta irratia	58
03.5. Museoak eta ondare kulturala.....	61
3.5.1. Museoetara joatea.....	61
3.5.2. Arte-galerietara joatea	62
3.5.3. Monumentu, eraikin edo toki historikoetara joatea.....	63
3.5.4. Museo eta arte-galerietarako bisiten arrazoiak	65
03.6. Laburpen konparatiboa.....	66

O4. Sormenarekin lotutako parte-hartze kulturala	69
o4.1. Amateur mailako praktika artistikoak	69
o4.2. Arte trebakuntza.....	73
o4.3. Kultura-elkarteetan parte hartzea	74
O5. Praktika digitalak.....	77
o5.1. Internet erabiltzea	77
o5.2. Kultura-praktika digitalak	78
o5.3. Kultura-edukia duten plataforma digitaletara harpidetzea	79
o5.4. Sare sozialak parte-hartze kulturean.....	83
O6. Euskarazko parte-hartze kulturala.....	84
o6.1. Euskara jakitea	84
o6.2. Euskarazko parte-hartze orokorra	86
o6.3. Euskarazko kultura-ohiturak.....	87
6.3.1. Arte eszenikoak eta musikalak euskaraz	87
6.3.2. Ikus-entzunezkoak euskaraz	91
6.3.3. Irakurketa euskaraz	93
6.3.4. Laburpen konparatiboa	97
o6.4. Euskarazko praktika digitalak.....	99
6.4.1. Euskararen erabilera Interneten eta online zerbitzuetan	99
6.4.2. Euskarazko sare sozialak.....	100
o6.5. Amateur mailako sormen-praktikak: bertsolaritza	102
o6.6. Euskarazko parte-hartzearen arrazoi subjektibo nagusiak	104
o6.7. Informazio-kanalak	106
o6.8. Euskarazko eskaintzari buruz	108
o6.9. Eskaintzaren mugak.....	110
O7. Eranskinak.....	112
A. Gurutzaketa-grafikoak.....	114
B. Inkestaren fitxa-teknikoa.....	168



Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	<i>Laginaren ezaugarriak, lurralde historikoaren (A), sexuaren (B), udalerriaren dimentsioaren (C), adinaren (D), ikasketa-mailaren (E) eta euskararen ezagutzaren (F) arabera.</i>	13
2. grafikoa.	<i>Ikasketa-maila, adinaren arabera (%)</i>	15
3. grafikoa.	<i>Euskararen ezagutza, adinaren arabera (%)</i>	15
4. grafikoa.	<i>Zein neurritan betetzen duten aisialdia ondorengo jarduerekin</i>	17
5. grafikoa.	<i>Kulturari buruzko baieztapenekiko adostasuna (nahikoa + erabat ados) (%)</i>	19
6. grafikoa.	<i>Proposamen artistiko bat hautatzerakoan, zein irizpideri ematen zaion garrantzia (nahikoa + handia) (%)</i>	21
7. grafikoa.	<i>Kulturari buruzko informazio-mailaren batez besteko autobalorazioa (2018-2023)</i>	22
8. grafikoa.	<i>Kulturari buruzko informazio-mailari buruzko auto-balorazioa (2018-2023) (%)</i>	22
9. grafikoa.	<i>Kultura-praktiketarako motibazioak (%)</i>	24
10. grafikoa.	<i>Amateur mailako praktiketarako motibazioak (%)</i>	26
11. grafikoa.	<i>Praktika digitalerako motibazioak (%)</i>	28
12. grafikoa.	<i>Parte-hartze kulturalerako motibazioa praktika-motaren arabera (2018-2023) (%)</i>	30
13. grafikoa.	<i>Azken 12 hilabeteetan ikuskizun eszenikoetara joateko maiztasuna (2023) (%)</i>	31
14. grafikoa.	<i>Azken 12 hilabeteetan antzerkira joateko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	32
15. grafikoa.	<i>Azken 12 hilabeteetan dantzara joateko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	34
16. grafikoa.	<i>Azken 12 hilabeteetan kontzertuetara joateko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	35
17. grafikoa.	<i>Grabatutako musika entzuteko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	37
18. grafikoa.	<i>Zuzeneko beste ikuskizunen ranking-a (2018-2023) (%)</i>	38
19. grafikoa.	<i>Azken 12 hilabeteetan zinemara joateko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	40
20. grafikoa.	<i>Ikusitako filmen hizkuntza (film bat behintzat hizkuntza bakoitzean) (%)</i>	41
21. grafikoa.	<i>Bideojokoak erabiltzeko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	43
22. grafikoa.	<i>Bideojokoaren hizkuntza (zein hizkuntzatan jolasten diren gehienetan) (%)</i>	44
23. grafikoa.	<i>Azken 12 hilabeteetan irakurritako liburuaren kopurua (2018-2023) (%)</i>	46
24. grafikoa.	<i>Azken 3 hilabeteetan, zenbatean behin irakurri dituzu halako liburuak (%)</i>	47
25. grafikoa.	<i>Irakurketa-euskarriak (%)</i>	49
26. grafikoa.	<i>Azken 12 hilabeteetan liburutegira joateko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	50
27. grafikoa.	<i>Liburutegira ez joateko arrazoiak (1. arrazoa eta 2. arrazoa) (%)</i>	51
28. grafikoa.	<i>Azken 12 hilabeteetan liburutegietako kultura- jardueretara joateko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	53
29. grafikoa.	<i>Liburu edo film digitalen mailegua (%)</i>	54
30. grafikoa.	<i>Egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	55
31. grafikoa.	<i>Egunkariak eta aldizkariak euskarri digitalean irakurtzeko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	56
32. grafikoa.	<i>Telebista eta irratia kontsumitzeko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	58
33. grafikoa.	<i>Telebista eta irratia modu digitalean kontsumitzeko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	59
34. grafikoa.	<i>Azken 12 hilabeteetan museoetara joateko maiztasuna (2018- 2023) (%)</i>	61
35. grafikoa.	<i>Azken 12 hilabeteetan arte-galerietara joateko maiztasuna (2018-2023) (%)</i>	62
36. grafikoa.	<i>Monumentu, eraikin edo toki historikoetara joatea (%)</i>	64
37. grafikoa.	<i>Museo, arte-galeria eta monumentu eta toki historikoetara joan direnen arrazoiak (2018- 2023) (%)</i>	65

7



66. grafikoa. Bertsolaritza praktikatzen duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (2018-2023) (%).	102
67. grafikoa. Biztanleria osoan bertsolaritza praktikatzen duten pertsona kopuruaren bilakaera (2008- 2018-2023) (%).	103
68. grafikoa. Euskarazko parte-hartze kulturala azaltzeko arrazoi subjektiboen ranking-a (%).	104
69. grafikoa. Euskarazko kultura-eskaintza ezagutzeko informazio-kanal nagusien ranking-a (2018- 2023) (%).	106
70. grafikoa. Euskarazko kultura-eskaintzari buruzko baieztapenekiko adostasuna (%).	108
71. grafikoa. Eskaintzaren muga nagusiak (%).	110
72. grafikoa. Kultura-informazio mailaren auto-balorazioa, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera	115
73. grafikoa. Kultura praktiketarako motibazioak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	116
74. grafikoa. Amateur mailako praktiketarako motibazioak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	117
75. grafikoa. Praktika digitalerako motibazioak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	118
76. grafikoa. Pertsonak, azken 12 hilabeteetan ikuskizun eszenikoetara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	120
77. grafikoa. Pertsonak, azken 12 hilabeteetan antzerkira joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	121
78. grafikoa. Pertsonak, azken 12 hilabeteetan dantzara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	122
79. grafikoa. Pertsonak, azken 12 hilabeteetan kontzertuetara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	123
80. grafikoa. Pertsonak, grabatutako musika entzuten duen maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	124
81. grafikoa. Pertsonak, azken 12 hilabeteetan zinemara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	125
82. grafikoa. Pertsonak, bideojokoak erabiltzen dituzten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	126
83. grafikoa. Bideojokoen hizkuntza, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	127
84. grafikoa. Pertsonak, azken 12 hilabeteetan irakurri duten liburu kopurua, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	128
85. grafikoa. Azken 3 hilabeteetan irakurri duten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	129
86. grafikoa. Irakurketa-euskarriak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	130
87. grafikoa. Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegira joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	131
88. grafikoa. Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegietarako kultura-jardueretara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	132
89. grafikoa. Liburu edo film digitalen mailegua, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	133
90. grafikoa. Pertsonak, egunkariak irakurtzen dituzten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	134
91. grafikoa. Pertsonak, aldizkariak irakurtzen dituzten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	135
92. grafikoa. Pertsonak, egunkariak euskarri digitalean irakurtzen dituzten maiztasuna, gurutzaketa aldagai ezberdinen arabera (%).	136
93. grafikoa. Pertsonak, aldizkariak euskarri digitalean irakurtzen dituzten maiztasuna, gurutzaketa aldagai ezberdinen arabera (%).	137
94. grafikoa. Pertsonak, telebista ikusten duten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	138
95. grafikoa. Pertsonak, irratia entzuten duten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).	139

96. grafikoa. <i>Pertsonak, telebista modu digitalean ikusten duten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	140
97. grafikoa. <i>Pertsonak, irratia modu digitalean entzuten duten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	141
98. grafikoa. <i>Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan museoetara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	142
99. grafikoa. <i>Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan arte-galerietara joan diren maiztasuna, gurutzaketa aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	143
100. grafikoa. <i>Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan monumentu, eraikin edo toki historikoren batera joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	144
101. grafikoa. <i>Museo, arte-galeria eta monumentu, eraikin edo toki historikoetara joateko arrazoi nagusia, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	145
102. grafikoa. <i>Azken urtean amateur mailako kultura-praktikaren bat egin duten pertsonak, gurutzaketa aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	147
103. grafikoa. <i>Ikastetxetik edo instituziotik kanpo, artearekin edo kulturarekin lotuta jardueraren bat egiteko maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	148
104. grafikoa. <i>Kultura-elkarte batean edo gehiagotan parte hartzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	149
105. grafikoa. <i>Internet eta online zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	151
106. grafikoa. <i>Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	152
107. grafikoa. <i>Kultura-praktikek sare sozialetan duten intzidentzia, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	153
108. grafikoa. <i>Euskarazko parte-hartze orokorra, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	155
109. grafikoa. <i>Azken 12 hilabeteetan gutxienez behin euskarazko antzezlanen bat ikustera joan diren pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	156
110. grafikoa. <i>Euskal musikariak edo musika-taldeak entzuten dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	157
111. grafikoa. <i>Azken 12 hilabeteetan bertso-saioren batera joan diren pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	158
112. grafikoa. <i>Zinema euskaraz nahiago duten pertsonak (ikusi nahi duten filma euskaraz proiektatzen denean bertsio hori beti edo askotan aukeratzen dutenak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i> ..	159
113. grafikoa. <i>Irratia euskaraz kontsumitzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	160
114. grafikoa. <i>Telebista euskaraz kontsumitzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	161
115. grafikoa. <i>Euskarazko irakurketa azken 3 hilabeteetan, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	162
116. grafikoa. <i>Euskarazko egunkariak kontsumitzen dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	163
117. grafikoa. <i>Euskarazko aldizkariak kontsumitzen dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	164
118. grafikoa. <i>Internet eta online zerbitzuen euskarazko erabilera, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	165
119. grafikoa. <i>Sare sozialen euskarazko erabilera, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	166
120. grafikoa. <i>Bertsolaritza praktikatzan duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)</i>	167



Aurkezpena

Kulturaren Euskal Behatokiak bideratu duen *Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartze kulturalaren Inkestaren emaitzak 2024* azaltzen dira txosten honetan. Kulturari dagokionez EAEko biztanleek dituzten ohiturak eta praktikak aztertzen ditu. Kultura-adierazpide ezberdinen hartzaile gisa dituztenak, eta sormenarekin lotutako norberaren jarduera ez profesionalei (amateur mailakoak) dagozkienak ere bai. Horiez gain, tarte berezia eskaintzen zaie ohitura eta praktika digitalei, batetik, eta ardatz-hizkuntza euskara dutenei, bestetik.

Biztanleen parte-hartze kulturalaren argazki xehatua emango duten adierazleak eskuratzea izan da ikerketaren helburu nagusia. EAEn bizi diren 15 urtetik gorako 4.700 laguneko lagin adierazgarri bati aplikatu zaio inkesta. Lurralde historikoen (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba) arabera ordezkagarritasuna ziurtatzen du laginak, bizileku-udalerraren tamainaren, adinaren eta euskararen ezagutzaren arabera ere haztatu da inkesta; horrek aukera ematen du, biztanleria-taldeen arabera, parte-hartze kulturalaren gizarte-banaketa ezagutzeko¹.

Bi aurrekari ditu txostenak, orain dela bost urteko *Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta 2019* eta *Euskal Herriko kultura-ohitura, praktika eta kontsumoen inkesta 2007-2008*, Kulturaren Euskal Behatokiak bultzatutako lehenengo bi estatistika-eragiketak. Biztanleriaren kultura-praktika nagusien azken hamabost urteetako bilakaeraren irakurketa alderatua egiteko aukera dago, beraz.

Sei atal ditu txosten honek. Lehenengoan, erabilitako laginari buruzko zehaztapenak ematen dira. Bigarren atalean jasotzen dira: biztanleriak parte-hartze kulturalaren inguruan dituen jarrerei, ematen dion garrantziari, kulturari buruz duen informazioari eta kultura-praktikak egitera bultzatzen duten motibazioei buruzko adierazleak.

Hirugarrenean, antolatutako kultura-praktiken inguruko xehetasunak jasotzen dira: eszenikoak eta musikalak, ikus-entzunezkoak, irakurketari dagozkionak eta museoekin eta ondarearekin lotutakoak.

Laugarren atalak kultura-praktika ez profesionalak edo amateur mailakoak deskribatzen ditu, kultura-ezagutzak eta baliabideak eskuratzeari eta alor horretako prestakuntzari dagozkion azalpenak ematen ditu eta kultura-elkarteetako parte-hartzea ere aztertzen du.

Gaur egungo parte-hartze kulturala ezagutzeko funtsezko diren praktika digitalen inguruan sakontzen du bosgarren atalak. Seigarrenak, euskarazko praktika kulturalak azaltzen ditu, arreta berezia eskainiz euskararen lurralde ezberdinen arteko alderaketari.

Amaitzeko, grafiko xehatuen eranskin osoa eta inkestaren fitxa teknikoa ere biltzen ditu txostenak.

1. Eranskinen ikus daiteke laginaren fitxa.



01.

Laginareen ezaugarriak

Hasieran, interesatzen zitzaizkigun aldagaietarako datu adierazgarriak eskuratuko genituela bermatzeko EAEn 3.800 elkarriketa pertsonal egitea proposatu zen. Baina, ondoren, Bilbori dagokion lagina handitzeko beharra planteatu zen, hiriburuko datuen adierazgarritasuna bermatzeko, zenbait gurutzatze-aldagaien arabera. Horregatik, hasieran aurreikusitako 600 inkesten ordezt, Bilbon 1.500 inkesta egin dira.

Beraz, **Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 urtetik gorako 4.700 kasuk** osatzen du guztira analisiaren lagina: 900 inkesta Araban, 2.512 inkesta Bizkaian eta 1.288 inkesta Gipuzkoan.

Biztanleria modu leialean ordezkatzeko datuak haztatuta daude, lurralde historikoen (Gipuzkoa,

Bizkaia eta Araba), bizileku-udalerriaren tamainaren, adinaren eta euskararen ezagutzaren (euskal hiztunak edo ez) arabera orekatuta². 2. eranskinean, inkestaren fitxa kontsulta daiteke.

Grafiko batzuek, "Biztanleria osoa"³ ez den beste oinarri bat dute portzentajeak kalkulatzeko. Kasu horietan, oinarritzat balio duen biztanleria-taldea hautatzen duen iragazkia eta guztizkoarekiko duen pisua adierazten dira.

Laginareen ezaugarriei dagozkien aipatutako aldagaiek, sexua eta ikasketa-mailaren aldagaiekin batera, gurutzaketa-aldagai gisa balioko dute. Aldagai horietan portzentaje edo batez besteko orokorrarekiko zer nolako aldea dagoen adierazteko, kolore eskala bat erabiliko da:



2. Indize horren kalkuluan ez da sexua aldagaia sartu; izan ere, alde batetik, laginean populazioaren antzeko proportzioan banatzen zen, eta, bestetik, ez dugu datu zehatzik sexuaren eta kontuan hartutako gainerako aldagaien arabera biztanleriaren banaketari buruz.

3. Analisisian, datu baliodun guztiekiko portzentajeak erabiliko dira. Kategoriatik horren barruan, ez dira kontuan hartuko "Ez daki / Ez du erantzun" kategoriakoak. Beraz, kasu horietan 4.700 norbanako baino gutxiago izan daitezke. Oro har, kasu kopuru txikia duen kategoriatik da eta, nahasketak saihesteko eta emaitzak errazago irakurri eta interpretatzeko, ezabatu egiten da.

Honako hauek dira gurutzaketa-aldagaiak osatzen dituzten kategoriak:


- **Lurralde historikoa.** Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia bereiziz.
- **Sexua.** Gizona edo emakumea.
- **Udalerriaren tamaina.** Biztanleria-tamainaren arabera tartearak identifikatzen ditu, eta aparte jasota daude hiriburuak.
- **Adina.** 10 urteko tartearak, 15 urtetik 65 urtera. 65 urtetik aurrera, berriz, kategoria bakarra.

- **Ikasketa-maila.** Belaunaldien arabera titulu ezberdinak daudenez, eta horrek dakarren konplexutasuna sinplifikatze aldera, batzuen eta besteen artean dauden aldeak talde berean batzeko zailtasunak egon arren, bost talde bereizi dira.
- **Euskara jakitea.** Horrela bereizten du biztanleria: euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutenak (biztanleria euskal hitzuna) eta euskaraz hitz egiten ez dutenak (erdaldunak).


1. grafikoa.

Laginen ezaugarriak, lurralde historikoaren (A), sexuaren (B), udalerriaren dimentsioaren (C), adinaren (D), ikasketa-mailaren (E) eta euskararen ezagutzaren (F) arabera.


A. Pertsonak, administrazio-eremuaren arabera (%)



B. Pertsonak, sexuaren arabera (%)




C. Pertsonak, bizi diren udalerriaren tamainaren arabera, biztanle-kopuruari dagokionez (%)







D. Pertsonak, adinaren arabera (%)



E. Pertsonak, amaitutako ikasketa-mailaren arabera (%)



F. Pertsonak, euskararen ezagutzaren arabera (%)




Aldagai horietako batzuk elkarren artean gurutzatzeak lagina osatzen duten profilak hobeto ulertzen laguntzen du. Zehazki, adinak ikasketa-mailarekin eta euskararekin duen lotura aztertu dugu.

Ikusten den bezala, ikasketa gutxien dituzten pertsonak dira gazteenak —adinagatik, oraindik

ez dituztelako ikasketak amaitu— eta adinez nagusienak direnak —belaunaldi-efektuagatik, hezkuntza-maila altuagoak haien gaztaroa eta eskolaratze-garaia baino beranduago hedatu baitziren—. Euskararen ezagutzari dagokionez, adinaren arabera eten bat ikusten da, nabarmena: zenbat eta gazteagoa, orduan eta euskararen ezagutza-maila handiagoa.


2. grafikoa.

Ikasketa-maila, adinaren arabera (%).



3. grafikoa.

Euskararen ezagutza, adinaren arabera (%).





O2.

Kulturarekiko jarrera orokorrak

O2. 1.

Kulturari eskaintzen zaion denbora

Kulturarekin lotutako jarduerak garrantzi handia hartzen dute herritarren aisialdian. 1etik 10erako eskala batean (non 1ak "batere ez" eta 10k "asko" adierazten duten), liburu edo aldizkariak irakurtzea da (5,5), paseatzea eta erosketak egitearen ondoren (5,8), batez besteko puntuazio altuena lortzen duen jarduera. Interneten edo sare sozialetan nabigatzeak lortu du hirugarren batez bestekorik altuena (5,1).

Hala ere, diferentzia handiak daude aisialdiaren banaketan. Batez ere, adinaren eraginez:

- Zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta denbora gehiago eskaintzen diote Interneten eta sare sozialetan nabigatzeari (15-24 urtekoen artean, 7,3) —baita kirola eta jarduera fisikoa egiteari ere—; aldiz, gutxiago liburu edo aldizkariak irakurtzeari (gazteenek 4,8). Ikus-entzunezkoen kontsumoan ere handia da aldea: zenbat eta gazteagoak izan


herritarrek, orduan eta denbora gehiago eskaintzen diote telesailak edo filmak online ikusteari (15-24 urtekoen artean, 6,1) eta gutxiago telebista ikusteari (15-24 urtekoen artean, 3,6).

- Aurrekoarekin lotuta dago, neurri batean, ikasketa-mailaren aldagaia ere. Zenbat eta altuagoak izan herritarren ikasketak, orduan eta denbora gehiago eskaintzen diote liburuak eta aldizkariak irakurtzeari (unibertsitate-ikasketak dituztenen artean, 6,1), baita kultura-ekitaldiak ikusi edo horietara joateari ere (unibertsitate ikasketak dituztenen artean, 4,6).
- Sexuari dagokionez, gizonezkoek emakumezkoek baino denbora gehiago eskaintzen diote kirola eta jarduera fisikoa egiteari (5,3), baita kirol ekitaldiak ikusteari ere (3,9).

Kulturari eskaintzen zaion denbora				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

4. grafikoa.

Zein neurritan betetzen duten aisialdia ondorengo jarduerekin
(1etik 10erako eskala batean, non 1 "batere ez" den, eta 10 "asko").





O2. 2.

Kulturarekiko jarrerak eta oztopo kulturalak

Kulturarekiko jarrera, oro har, positiboa dela esan daiteke, % 91,8k adierazi baitu arteak eta kultura oso garrantzitsuak direla gizarte hobea lortzeko. Kultur parte-hartze handiago bat eragozten duten arrazoiei dagokienez, eskaintza (% 57,2) eta prezioa (% 51,7) nagusitzen dira, konpainia- (% 29,6) eta ezagutza- (% 25,1) faltaren aurretik.

Aldagaien arabera aztertuz, ikasketa-maila da alderik handienak eragiten dituen:

- Unibertsitate-ikasketak dituztenak asebateago sentitzen dira (% 77,2) artearen eta kulturaren bidez, eskaintza handiago bat eskertuko lukete (% 61,9) eta ezagutza-falta gutxitan da arazo, haientzat (% 13,8).
- Ikasketarik ez dutenen artean, aldiz, % 40,5ek eta Batxilergoa, OHO edo DBH dutenen % 44,2k, aldiz, ezagutza-falta aitortu du. Gainera, ikasketarik ez dutenen ia hamarretik hiruk adierazi du arteak ez direla bera bezalako pertsonentzat.
- Adina igo ahala, eskaintza handiagoa balitz gehiago parte hartuko luketela diotenek ehunekoa nabarmen jaisten da: 15-24 urtekoen artean % 73,3 eta nagusien artean % 40,6. Joera berdina da jarduera eta produktu kulturalen prezioari dagokionez, gazteenen % 71,2rentzat erabakigarria da —65 urtetik gorakoen artean % 34,1—.

- Euskararen ezagutzak alde esanguratsuak eragiten ditu: euskaldunak asebateago sentitzen dira (% 73,6) —erdaldunen artean % 63,4—, eskaintza handiagoa balitz gehiago parte hartuko luketela diotenek ehunekoa ia zazpi puntu altuagoa da % 61,3 erdaldunen artean baino (% 54,7). Gainera, erdaldunentzat baino ezagutza falta gutxiagotan da arazo —euskaldunen artean % 19,8 eta erdaldunen artean % 28,3—.


- Sexuak alde nabarmen bi eragiten ditu: jarduera eta produktu kulturalen prezioa erabakigarria da emakumeen % 56,6rentzat. Gizonezkoen artean, berriz, % 46,4rentzat. Halaber, kultur jardueretara ez dutela norekin joan diotenek ehunekoa hamar puntu altuagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

- Udalerriaren tamainak aldeak eragiten ditu: 10-25 mila biztanleko herrietakoak gainerakoak baino asebetetze maila txikiagoa dute (% 60,2), eskaintza handiagoa balitz gehiagotan hartuko luketela parte diotenak % 63,5 dira 10 mila biztanletik beherako herrietan —hiriburuetan % 54—. Gainera, ezagutza falta gutxiagotan da arazo hiriburuetako biztanleentzat —% 21,5 hiriburuetan eta % 40,5 10-25 mila arteko herrietan—.

Kulturarekiko jarrerak eta oztopo kulturalak				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

5. grafikoa.

Kulturari buruzko baieztapenekiko adostasuna (nahikoa + erabat ados) (%).



Kulturarekiko jarrerak eta oztopo kulturalak

LURRALDE-EREMUA



Lurralde historikoaren arabera, Bizkaiko herritarren % 53,9rentzat jarduera eta produktu kulturalen prezioa erabakigarria da: Araban %47rentzat eta Gipuzkoan % 50,4rentzat—. Bestalde, artea eta kultura gizarte hobeagoa lortzeko ez da hain garrantzitsua Gipuzkoan: %88,9 – Araban % 94,4 eta Bizkaian % 93—.



Proposamen artistiko bat hautatzerakoan, badirudi gertutasuna edo alde aurreko ezagutza dela erabakigarriena: ezagunek gomendatutakoa izatea —% 77,4k adierazi du nahikoa edo oso garrantzitsua dela— edo artista ezagutzea (% 69,3). Garrantzi gutxien dutenak, aldiz, euskaraz izatea (% 39) eta emakume sortzaile batena izatea (% 34,8).

Aldagaien arabera aztertuz, hizkuntza-ezagutzak eta adinak eragiten ditu alde nabarmenak:

- Euskal hiztunentzat erdaldunentzat baino askoz ere garrantzitsuagoa da ikuskizuna euskaraz izatea (% 70,7), baina baita tokiko proposamena izatea (% 81,9), artista ezagutzea (% 77,4) eta emakume sortzaile batena izatea (% 45,1) ere.
- Zenbat eta gazteagoak izan herritarrak, orduan eta garrantzi handiagoa ematen diote ikuskizuna ezagunek gomendatutakoa izateari: 15-24 urtekoen artean % 84,6 —64 urtetik gorakoen artean % 69,4—. Gazteenek, halaber, beste adin-tarteetakoek baino garrantzi handiagoa ematen diote tokiko


proposamena izateari (% 75,1), talentu berriena izateari (% 57,1), euskaraz izateari (% 56,5), esperimentala/berritzailea izateari (% 56) eta emakume sortzaile batena izateari (% 48,8).

- Emakumeen % 43,1ek ikuskizuna emakume sortzaile batena izateari garrantzia eman diote —gizonen %26,1—. Gainera, emakumeek gizonen baino garrantzia gehiago eman diote talentu berriena izateari (% 55,3) eta kritika onak edukitzeari (% 66,8).
- Unibertsitate-ikasketak dituztenek beste ikasketa mailetakoei baino garrantzi handiagoa ematen diote euskaraz izateari (% 45,4) eta ezagun batek gomendatutakoa izateari (% 82,9).
- 10 mila biztanle baino gutxiago eta 10-25 mila biztanle artean dituzten herrietakoek garrantzi handiagoa eman diote tokiko proposamena izateari (% 72,7 eta %72,2, hurrenez hurren) eta euskaraz izateari (% 45,3 eta % 48, hurrenez hurren).

Proposamen kultural bat hautatzerakoan, zein irizpideri ematen zaion garrantzia				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

6. grafikoa.

Proposamen artistiko bat hautatzerakoan, zein irizpideri ematen zaion garrantzia (nahikoa + handia) (%).



Proposamen kultural bat hautatzerakoan, zein irizpideri ematen zaion garrantzia

LURRALDE-EREMUA



Lurralde historikoaren arabera, Gipuzkoan garrantzi berezia ematen zaio euskaraz izateari: % 49,8 —Araban % 28,6 eta Bizkaian % 35,3. Tokiko proposamena izatea ere Gipuzkoan (% 71,1) garrantzitsuagoa da gainerakoetan baino.



O2. 3.


Kultura eskaintzari buruzko informazio-maila

1etik 4rako balorazio-escala batean, non 1 ezer ez den eta 4 asko den, 2,6koa da batez besteko puntuazioa, inguruko kultura-eskaintzari buruz

herritarrek duten informazio-mailari dagokionez. 2018ko datuekin alderatuz gero (2,8), behera egin du batez besteko horrek.


7. grafikoa.

Kulturari buruzko informazio-mailaren batez besteko autobalorazioa (2018-2023).



8. grafikoa.

Kulturari buruzko informazio-mailari buruzko auto-balorazioa (2018-2023) (%).



Aldagaien arabera, ikasketa-mailak eta adinak eragiten dituzte alderik handienak:

- Zenbat eta ikasketa altuagoak izan, orduan eta hobeto baloratzen dute herritarrek haien informazio-maila: oinarritzko ikasketarik gabekoek 2,3ko batez bestekoa eta unibertsitate-ikasketak dituztenek 2,8koa.
- Adinean gora egin ahala ere, informazio-mailarekiko pertzepzioa hobetu egiten da, 64 urtera arte. 64tik gorakoak ez daude aurreko adin-tarteetakoak bezain informatuta (2,6).
- Euskal hiztunek hobeto informatuta daudela hautematen dute: 2,8 –2,5ko batez bestekoa erdaldunek—.

Kulturari buruzko informazio-maila				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Kulturari buruzko informazio-maila	
LURRALDE-EREMUA 	Administrazio-eremuaren arabera, Gipuzkoako biztanleek hobeto informatuta daudela hautematen dute (2,7), Arabakoek eta Bizkaikoek (2,6, bi lurraldeetan) baino.



O2. 4.

Parte-hartze kulturalerako motibazioak

Lau motibazio-mota bereizten dira, kasu bakoitzean parte-hartze kulturalak asebetetzen dituen premien arabera:


- **Motibazio sinbolikoa:** pertsona gisa aberasteko premiarekin dago lotuta, autorrealizatzeko premiarekin.
- **Motibazio kulturala:** jakintza-maila areagotzeko premiarekin dauka zerikusia.
- **Motibazio soziala:** jarduera kultural batean parte-hartzeak beste jende batekin erlazionatzeko eta esperientzia partekatzekeo premiarekin dauka zerikusia.
- **Motibazio emozionala:** deskonektatzeko, errutinatik ateratzeko eta sentsazio berriak esperimentatzeko premiarekin dago lotuta.

Hartzaile gisa egiten den parte-hartze kulturalerako motibazioa

Motibazio sinbolikoa (% 30,6) eta emozionala (% 29,9) dira kultura-jardueretara joateko eta kontsumo pasiboko jardueretan edo hartzaile gisa egiten direnetan ohikoenak. Motibazio kulturala ere oso hurbil dago, % 28,3rekin. Motibazio soziala, aldiz, oso urrun geratzen da, % 11,1rekin. 2018an ere antzekoa zen banaketa hori, baina motibazio emozionalak, lehen tokian zegoenak, zein sozialak pisu gehiago zuten.

9. grafikoa.

Kultura-praktiketarako motibazioak (%).



Aldagaien arabera, ikasketa-maila eta adina dira diferentziarik handienak eragiten dituztenak.

- Ikasketa-mailak gora egin ahala, motibazio sinbolikoaren pisua handitu egiten da: oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean % 22,8 eta unibertsitate-ikasketak dituztenen artean % 35,5. Ikasketa-maila apalenak dituztenen artean motibazio emozionalak hartzen du pisurik handiena (% 34,4).

- Herritar gazteenentzat pisu handiagoa hartzen du motibazio emozionalak: 15-24 urtekoen artean % 33,9 eta 25-34 urtekoen artean % 36,8. Aldiz, 55 urtetik gora motibazio sinbolikoaren pisua handitu egiten da.
- Erdaldunek euskaldunek baino garrantzi handiagoa ematen diote motibazio kulturalari: % 30,7 eta % 24,5 hurrenez hurren.

Hartzaile gisa egiten den parte-hartze kulturalerako motibazioa

IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Hartzaile gisa egiten den parte-hartze kulturalerako motibazioa

LURRALDE-EREMUA



Lurralde historikoaren arabera, motibazio sinbolikoari ematen zaio garrantzia handiagoa Araban eta Bizkaian (% 32,4 eta % 31,7, hurrenez hurren) Gipuzkoan baino (% 27,9). Aldiz, Gipuzkoa nabarmentzen da motibazio sozialean: % 13,8 — Araban % 8,5 eta Bizkaian % 10,2—.




Amateur mailako praktiketarako motibazioa

Sormen-jarduera ez profesionalen edo amateur mailako praktiken kasuan, motibazio sinbolikoa nagusitzen da (% 39,0), emozionalaren aurretik

(% 37,1). Motibazio soziala (% 14,3) eta kulturala (% 9,4) oso urrun geratzen dira. 2018an, motibazio emozionala zegoen lehen tokian.

10. grafikoa.

Amateur mailako praktiketarako motibazioak (%).



Aldagaien artean, ikasketak eta sexua dira alderik handienak eragiten dituztenak:

- Unibertsitate-ikasketak dituztenen artean hartzen du garrantzirik handiena motibazio sinbolikoak (% 40,9). Kulturala, berriz, oinarritzko ikasketarik gabekoen artean nabarmentzen da: % 20,2 eta, bestalde, euren artean du motibazio sozialak pisurik txikiena (% 9). Gainera, goi-mailako Batxilergoa, UBI dutenen artean, motibazio emozionalak hartzen du lehen tokia (% 42,8), LH, erdi- eta goi-mailakoen artean bezala (% 39,8).
- Adinari dagokionez, sozializatzek hartzen du garrantzi berezia 64 urtetik gorakoen artean: % 21,4 –15-24koen artean % 11,6– eta motibazio emozionalak pisurik handiena du 35-44 urtekoen artean, % 44,1.
- Gizonezkoen artean garrantzi handiagoa hartzen du motibazio sinbolikoak (% 43,1) eta emakumezkoen artean emozionalak (% 40,0).
- 10-25 mila biztanleko herrietan motibazio emozionalak du pisurik handiena, % 42,2 eta 10 mila biztanlez azpikoetan eta 50 mila biztanlez gorakoetan sozializazioak gainerakoetan baino garrantzia handiago du –% 18,9 eta %19,6, hurrenez hurren–.

Amateur mailako praktiketarako motibazioa

IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Amateur mailako praktiketarako motibazioa

LURRALDE-EREMUA	
	Lurralde historikoen arabera ez dago esanguratsurik.




Praktika digitaletarako motibazioa

Alor digitaleko jarduerari dagokienez, motibazio emozionala gailentzen da (% 32,3), motibazio kulturalaren aurretik (% 29,8). Motibazio soziala

(% 20,2) eta sinbolikoa (% 17,7) atzerago daude. 2018an, aldiz, motibazio kulturala zegoen lehen tokian eta emozionala azkenekoan.

11. grafikoa.

Praktika digitalerako motibazioak (%).



Aldagaien arabera, ikasketa-maila eta adina dira diferentziarik handienak eragiten dituztenak:

- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta garrantzi handiagoa hartzen du motibazio sinbolikoak: % 19,3 unibertsitate-ikasketak dituztenen artean —oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean, % 8,2—. Motibazio emozionalaren pisua nabarmentzen da, berriz, Batxilergoa, OHO edo DBH eginda dutenen artean (% 38) eta kulturalaren pisua oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean, % 39,9.
- Adinean gora egin ahala, garrantzi handiagoa hartzen du motibazio kulturalak: 64 urtetik gorakoen artean % 37,7 —15-24 urtekoen artean % 15—. Motibazio sozialaren pisua

nabarmentzen da, berriz, 15-24 eta 25-34 urtekoen artean: % 35,7 eta % 36, hurrenez hurren.

- Motibazio sozialarekin lotuago daude euskaldunak erdaldunak baino: % 25,7 eta % 16,5, hurrenez hurren. Aldiz, erdaldunentzat euskaldunentzat baino garrantzi handiagoa hartzen du motibazio kulturalak: % 36,6 eta % 32,0, hurrenez hurren.
- Motibazio emozionalaren pisua handiagoa da 10-25 mila eta 25-50 mila biztanleko herrietan — % 23,4 eta % 25,2, hurrenez hurren —. Gainera, 10 mila biztanle baino gutxiagoko udalerrietan motibazio kulturala lehen posizioan dago, % 34,9rekin.

Praktika digitaletarako motibazioa				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Praktika digitaletarako motibazioa	
LURRALDE-EREMUA 	Araban pisu handiagoa hartzen du motibazio sinbolikoak: % 22,0 — Bizkaian % 17,8 eta Gipuzkoan % 15,4—. Motibazio soziala nabarmentzen da, berriz, Gipuzkoan (% 22,7) eta Bizkaian (% 20,3), Arabarekiko diferentziagatik (%14,8).

Alderaketa-ikuspegia

Motibazioen garrantzia nahiko ezberdina da parte-hartze modu bakoitzean:

- Kultura-praktika hartzaileetan, motibazioen pisuaren banaketa nahiko homogeneoa da, baina motibazio sozialaren pisua nabarmen txikiagoa da (% 11,1).
- Amateur mailako sormen-praktiketan, motibazio sinbolikoa (% 39,0) eta emozionala (% 37,1) daude beste bi motibazio moten dezente gainetik.

- Praktika digitalen kasuan, bestalde, motibazio emozionala (% 32,3) eta motibazio kulturala (% 29,8) dira gailentzen direnak.


Alderaketaren ikuspegitik, interesgarria da diferentziak administrazio-eremuen arabera aztertzea ere:

Alderaketa-ikuspegia	
LURRALDE-EREMUA 	Praktika ezberdinak kontuan hartuz, motibazio sozialaren pisua apalagoa da Araban, Bizkaian eta batez ere Gipuzkoan baino. Sinbolikoak, berriz, Araban Gipuzkoa eta Bizkaian baino pisu handiagoa hartzen du.



12. grafikoa.

Parte-hartze kulturalerako motibazioa praktika-motaren arabera (2018-2023) (%).



03. Parte-hartze kulturala hartzaile gisa

03. 1.

Arte eszenikoak eta musika

3.1.1. Ikuskizun eszenikoetara joatea

Hamarretik zazpi herritar joan da azken urtean, behin gutxienez, ikuskizun eszeniko bat ikustera

(inoiz ez % 29,1 eta 4 aldiz baino gehiagotan % 31,9).

13. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan ikuskizun eszenikoetara joateko maiztasuna (2023) (%).



Aldagaien arabera aztertuz gero, adina, ikasket-maila eta euskara jakitea dira diferentziarik handienak eragiten dituztenak:

- 35-44 urtekoen artean: % 81,1 joan da ikuskizun eszenikoren batera. Beste muturrean daude 64 urtetik gorakoak (% 55,9).
- Unibertsitate-ikasketak dituztenen artean: % 82,0 joan da ikuskizun eszenikoren batera. Ikasketarik gabekoek artean, berriz, % 41,8.
- Euskal hiztunen artean: % 78,9 joan da ikuskizun eszenikoren batera. Erdaldunekiko diferentzia nabarmena da (% 66,0).
- 10-25 mila biztanle arteko herrietan % 35,2raino igotzen dira inoiz joan ez direnak— hiriburuetan % 26,2—.



Ikuskizun eszenikoetara joatea				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Ikuskizun eszenikoetara joatea	
LURRALDE-EREMUA	
	Lurralde-eremuaren arabera ez dago aparteko alderik, ikuskizun eszenikoetako asistentziari dagokionez. Gipuzkoan, inoiz joan ez direnen pisua handixeagoa da: % 32,3 –Araban % 26,5 eta Bizkaian % 27,9–.


3.1.2. Antzerkira joatea

Azken urtean herritarren % 57,9 joan da antzerki-emanaldiren bat ikustera, behin gutxienez.

Hamabi puntuko igoera da hori, 2018ko datuekin alderatuta.

14. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan antzerkira joateko maiztasuna (2018-2023) (%).



Aldagaien arabera aztertuz gero, adina, ikasketa-maila eta euskara jakitea dira alde handienak eragiten dituztenak:

- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da antzerki ikuskizunetara joan direnen pisua: % 82 unibertsitate-ikasketak dituztenen artean. Oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean, berriz, % 28,3.
- 35-44 urtekoak dira antzerki-ikuskizunetara gehien joan direnak: % 68,9. Gutxien joan direnak, berriz, 64 urtetik gorakoak (% 42,6) eta gazteenak (%54,8).
- 10-25 mila arteko herrietako biztanleak dira antzerki-ikuskizunetara gutxien joan direnak: %49,9.
- Euskal hartzunen artean % 64,7 joan da antzerki-ikuskizunen batera. Hamaika puntukoa da erdaldunekiko aldea (% 53,7).

Antzerkira joatea				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Antzerkira joatea	
LURRALDE-EREMUA 	Arabako eta Bizkaiko herritarrak dira antzerki-ikuskizunetara gehien joan direnak: (% 61,1 eta % 60,4). Gipuzkoakoak, aldiz, gutxien: % 53,4 joan da behin gutxienez.




3.1.3. Dantza-ikuskizunetara joatea

Biztanleriaren herena inguru joan da, azken urtean, dantza-ikuskizunen bat ikustera. 2018koaren antzekoa da datua. Hala ere, dantza-

ikuskizunetara joateko maiztasuna pixka bat murriztu egin da.

15. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan dantzara joateko maiztasuna (2018-2023) (%).



Dantzaren kasuan, ondorengoak dira aldagaien araberako azterketak erakusten dituen aldeak:

- 15-24 urtekoak joan dira gehien dantza-ikuskizunetara: % 41,9. 55-64 urtekoen artean, berriz, % 27,9 eta 64 urtetik gorakoek artean % 28,5.
- Oinarrizko ikasketarik ez dutenak joan dira gutxien dantza-ikuskizunetara: % 81,6 ez da behin ere joan. Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean, aldiz, % 64koa da portzentaje hori.
- Euskal hiztunak erdaldunak baino gehiago joan dira dantza-ikuskizunetara: % 40,5 joan da behin gutxienez —erdaldunen artean % 27,6—.
- 10 mila biztanletik beherako herrietan bizi direnak joan dira gehien dantza-ikuskizunetara: % 38,3. 50 mila biztanlez gorakoetan, aldiz, % 26,7.

Dantza-ikuskizunetara joatea				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Dantza-ikuskizunetara joatea	
LURRALDE-EREMUA 	Ez dago alde nabarmenik lurralde historikoaren arabera dantza ikuskizunetara joaten direnen artean.


3.1.4. Kontzertuetara joatea

Biztanleen % 64,8 joan da gutxienez kontzertu batera azken hamabi hilabeteetan. Horien ia erdia joan da lau kontzertu baino gehiagotara

denbora-aldi horretan. 2018arekin alderatuta, oso antzekoa da noizbait kontzertuetara joan direnen ehunekoa.

16. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan kontzertuetara joateko maiztasuna (2018-2023) (%).





Alde esanguratsuak daude, aldagaien arabera, kontzertuetara joateari dagokionez.

- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila orduan eta handiagoa da kontzertuetara joan direnen pisua: oinarritzko ikasketarik ez dutenen artean % 27 eta unibertsitate ikasketak dituztenen artean % 77,7.
- Belaunaldien arteko aldea oso handia da. 15-24 urtekoen % 57,9 lau kontzertutara edo gehiagotara joan da. 64 urtetik gorakoen artean, aldiz, % 58,8 ez da kontzertu bakar batera ere joan.

- Euskal hiltunen % 77,3 joan da kontzerturen batera, eta % 46,6 lau aldiz baino gehiagotan. Erdaldunen artean, berriz, % 42,7 ez da behin ere joan.

- Gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago joan dira kontzertuetara: % 37,2 lau kontzertutara baino gehiagotara. Emakumezkoen % 40,2, aldiz, kontzertu bakar batera ere ez.

Kontzertuetara joatea				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA


Kontzertuetara joatea	
LURRALDE-EREMUA 	Bizkaiko herritarrek zertxobait gutxiagotan joan dira kontzertuetara: % 36,8 inoiz ez da joan —Araban % 33,8 eta Gipuzkoan % 33,2—.

3.1.5. Grabatutako musika entzuteko maiztasuna

Biztanleriaren % 78,5ek entzuten du maiztasun handiz (egunero edo astero) grabatutako musika. 2018arekin alderatuta ez dago ia alderik.

17. grafikoa.

Grabatutako musika entzuteko maiztasuna (2018-2023) (%).



Adinak eta ikasketa-mailak eragiten dituzte alderik handienak, grabatutako musika entzuteari dagokionez.

- Zenbat eta gazteagoak izan herritarrak, orduan eta altuagoa da grabatutako musika egunero entzuten dutenen pisua: 15-24 urte dituztenen artean % 82,8 eta 64 urtetik gorakoen artean % 35,4.

- Zenbat eta apalagoa izan ikasketa-maila, orduan eta altuagoa da musikarik inoiz entzuten ez dutenen pisua: % 38,5 oinarritzko ikasketarik ez dutenen artean eta % 9,1 unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean.
- Euskal hiztunek egunero musika entzuteko ohitura handiagoa dute: % 63,8 – erdaldunen artean % 52,4k—.

Grabatutako musika entzun

IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Grabatutako musika entzun

LURRALDE-EREMUA



Ez dago alde esanguratsurik hiru lurraldeen artean grabatutako musika entzuteari dagokionez.




3.1.6. Zuzeneko beste ikuskizun batzuk

Genero zehatzetako ikuskizunei buruz ere galdetu zitzairen herritarrei. Antzerki musikalak dira nagusi (% 25,0) eta haur antzerkiak daude ondoren (% 17,9). 2018an ere, bi genero horiek ageri ziren ranking-eko lehen tokietan. Orduan ez bezala, oraingoan bertso-saioak (% 13,9) magia-ikuskizunen (% 12,2) aurretik daude.

Pisu apalagoarekin ageri dira literatura-jaialdi edo zikloak, zirkua, opera, pastoralak edo maskaradak.

18. grafikoa.

Zuzeneko beste ikuskizunen ranking-a (2018-2023) (%).



Aldagaien erreparatur, azpimarra daiteke:

- 35-44 urtekoen artean (% 39,6) haur antzerkietara joan direnen ehunekoa oso altua da, beste adin-tarteekin alderatuta —seme-alaba txikien eraginagatik—. Ildo beretik, magia-ikuskizunetara eta zirkura joan direnen ehunekoa ere nabarmen altuagoa da (% 23,0 eta % 19,4, hurrenez hurren).
- Bertso-saioetara joan direnen ehunekoa altuagoa da gazteen artean: 15-24 urtekoen artean % 20,5, 25-34 urtekoen artean % 17,7 eta 35-44koen artean % 17,1.

- Unibertsitate-ikasketak dituztenen kasuan gainontzeko ikasketa-mailak dituztenen artean baino altuagoa da, oro har, zuzeneko ikuskizunetara joaten direnen pisua: antzerki musikalerara (% 32,3), literatur-jaialdi edo zirkloetara (% 14,6) eta operara (% 11,8).
- Euskal hiztunek erdaldunek baino pisu handiago dute haurrentzako antzerkira (% 21,4), bertso saioetara (% 28,1), zirkura (% 11,4) eta pastoral edo maskaradetara joaten direnen artean (% 3,4).

Zuzeneko beste ikuskizun batzuk				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Zuzeneko beste ikuskizun batzuk	
LURRALDE-EREMUA 	Araban magia ikuskizunetara joan direnen pisua (% 21,7) askoz ere altuagoa da Bizkaian (% 12,4) eta Gipuzkoan (% 7,6) baino. Araban eta Bizkaian antzerki musikalerara joan direnen ehunekoa (% 27,1) Gipuzkoan (% 20,8) baino altuagoa da. Gainera, Bizkaian operara joan direnen pisua (% 8,9) beste bi lurralde eremuetan baino handiagoa da —% 4,6 Araban eta % 5,4 Gipuzkoan—.



03. 2.

Ikus-entzunezkoak


3.2.1. Zinemara joatea

Biztanleen % 63,4 joan da gutxienez behin zinemara, azken hamabi hilabeteetan. Sei puntuko jaitsiera izan da 2018arekiko. % 35,6 lau

aldiz edo gehiagotan joan da zinemara, 2018an baino zazpi puntu gutxiago.

19. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan zinemara joateko maiztasuna (2018-2023) (%).



Zinemara joateko ohiturari dagokionez, diferentzia handiak ageri dira aldagaien arabera azterketan:

- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da zinemara urtean behin behintzat joan direnen ehunekoa: %29 oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean eta % 75,9 unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.
- Adinean gora egin ahala, handitu egiten da zinemara inoiz joan ez direnen ehunekoa: 15-24 urtekoen artean % 13,5 eta 64 urtekoen artean % 61,4.

- Herriaren tamainak ere eragiten du zinemara joateko ohituran: hiriburuetan % 68,1 joan da behin behintzat, 10 mila biztanletik azpiko herrietan eta 10-50 mila biztanle arteko herrietan hamarretik sei joan dira.
- Euskal hiztunen artean erdaldunen artean baino baxuagoa da zinemara inoiz joan ez direnen ehunekoa: % 25,8 eta % 43,1, hurrenez hurren.
- Emakumeen artean gizonen artean baino pixka bat altuagoa da zinemara inoiz joan ez direnen ehunekoa: % 39,9 eta % 33,1.

Zinemara joatea				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Zinemara joatea	
LURRALDE-EREMUA	
	Zinemara inoiz joan ez direnen ehunekoa handiagoa da Bizkaian: %38,2 –Arabaren % 35,5 eta Gipuzkoan % 34,4–. Halaber, lau aldiz edo gehiago joan direnen ehunekoa ere altuagoa da Araban (% 37,8) eta Gipuzkoan (%39,4) Bizkaian (%32,7) baino.


Zineman ikusitako filmen hizkuntza

Zinemara urtean behin behintzat joan direnen artean (lagin osoaren % 63,4), erdarazko film bat, behintzat, ikusi dute (% 100). Euskarazko film bat

% 20,3k, ingelesezko film bat % 7,7k eta beste hizkuntza bateko film bat % 2,9k.

20. grafikoa.

Ikusitako filmen hizkuntza (film bat behintzat hizkuntza bakoitzean) (%).



Unibertsoa: azken 12 hilabeteetan zinemara behin edo gehiagotan joan direnak. Ehunekoen batura ez da 100, hizkuntza bakoitzari buruz berariaz galdetu delako.



Aldagaien arabera azterketan, nabarmendu daiteke:

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean altuagoa da zineman film bat behintzat euskaraz (% 26,3), ingelesez (% 10,3) eta beste hizkuntzaren batean (% 3,3) ikusi dituztenen pisua.
- Gazteek ingelesezko filmak ikusteko ohitura handiagoa dute: % 14,6k ikusi du ingelesezko film bat 15-24 urtekoen artean eta % 13,1ek 25-34 urtekoen artean ere.
- Beste hizkuntzaren batean filmak gehien ikusi dituztenak 15-24 urte arteko gazteak dira (% 5,6).
- Filmen bat euskaraz ikusi dutenen pisua altuagoa da gizonezkoen artean: % 23,3 – emakumezkoen artean % 17,0—.
- Filmen bat euskaraz ikusi dutenen pisua altuagoa da 10 mila biztanletik beherako herritarren artean: % 27.
- Euskal hiltunen % 36,6k ikusi du euskarazko film bat zineman, azken urtean.

Zineman ikusitako filmen hizkuntza				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Zineman ikusitako filmen hizkuntza	
LURRALDE-EREMUA 	Gipuzkoan altuagoa da film bat euskaraz ikusi dutenen ehunekoa (% 26,6), Bizkaiarekin (% 17,2) eta Arabarekin (% 16,6) alderatuta. Halaber, altuagoa da film bat ingelesez (% 9,5) ikusi dutenen ehunekoa.


3.2.2. Bideojokoak

Biztanleen % 16 jolastu izan da, urtean behin, gutxienez, bideojokoetan. Ia sei puntuko jaitsiera dago 2018arekiko. % 10,6 da astean behin baino

gehiagotan aritzen dena. Azken ehuneko hori 2018koaren antzekoa da (% 12,1).

21. grafikoa.

Bideojokoak erabiltzeko maiztasuna (2018-2023) (%).



Aldagaien arabera azterketan nabarmendu daiteke:

- Adina igo ahala, gutxiago jolastu ohi da: 15-24 urtekoen artean % 28,6 astean behin gutxienez aritzen da bideojokoetan. 64 urtetik gorakoen artean, soilik % 4,9 aritzen da.
- Sexuaren arabera ere, hamar puntutik gorako aldea dago bideojokoetan inoiz jolasten ez

direnen ehunekoan: emakumezkoen artean % 89 eta gizonezkoen artean % 78,7.

- Tarteko ikasketak dituztenen artean (Goi Mailako Batxilergoa, LOGSE Batxilergoa, UBI) nabarmentzen da bideojokoetan astean behin gutxienez aritzen direnen ehunekoak: %14,8 —oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean % 6,5—.

Bideojokoak				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Bideojokoak	
LURRALDE-EREMUA 	Lurralde historikoaren arabera ez dago alderik bideojokoetan aritzeko ohiturari.




Zein hizkuntzatan aritzen diren bideojokoetan

Bideojokoetan hiruhilekoan behin gutxienez jolastu diren gehien-gehienak gaztelaniaz aritu dira gehienetan (% 79,6), % 17,8 ingelesez

gehienetan, eta % 1,7 baino ez euskaraz gehienetan.

22. grafikoa.

Bideojokoen hizkuntza (zein hizkuntzatan jolasten diren gehienetan) (%).



Unibertsoa: bideojokoetan hiruhilekoan behin gutxienez jolastu ohi direnak.

Euskararen ezagutza eta adina dira alderik handienak eragiten dituztenak, bideojokoetako hizkuntzari dagokionez.

- Belaunaldien arteko diferentzia handia da: 15-24 urtekoen % 27,8 aritzen da gehienetan ingelesez eta % 5,5 euskaraz. 64 urtetik gorakoen artean, aldiz, % 6,9 ingelesez, % 2,1 beste hizkuntza batean eta % 0 euskaraz.
- Euskal hiztunen % 3,2 aritzen da gehienetan euskaraz eta % 23 ingelesez —erdaldunen artean, % 13,6 ingelesez—.
- 50 mila biztanletik gorako herriak nabarmendu dira % 23,6 aritzen direlako gehienetan ingelesez eta 10 eta 25 mila artekoak %3,5 aritzen direlako gehienetan euskaraz.
- Gizonezkoen % 20,27 aritzen da gehienetan ingelesez —emakumeen artean % 13,4—.

Bideojokoaren hizkuntza				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Bideojokoaren hizkuntza	
LURRALDE-EREMUA 	Gipuzkoan beste lurraldeetan baino altuagoa da gehienetan euskaraz (% 4,2) aritzen diren ehunekoa. Bizkaian, bestalde, ingelesez aritzen diren pisua nabarmentzen da (% 20,4).



03. 3. Irakurtzea


3.3.1. Liburuak

Biztanleen % 75,9k irakurri du gutxienez liburu bat —entretanimendu modura, ikasketekin edo lanarekin zerikusirik ez duena— azken 12

hilabeteetan. % 48,1ek irakurri ditu lau liburu baino gehiago denbora-aldi berean. 2018arekiko, lau puntuko igoera dago lau liburu baino gehiago irakurri dituztenen artean.

23. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan irakurritako liburuen kopurua (2018-2023) (%).



Adina, ikasketak eta sexua dira alderik handienak eragiten dituztenak, entretenimendurako liburuen irakurketari dagokionez:

- 55-64 urteko herritarrak dira irakurketa-ohiturengatik gehien nabarmentzen direnak, % 80,5ek irakurri du liburu bat, gutxienez. Eta % 58,5ek lau liburu edo gehiago urtean. 45- 54 urtekoak ere ez daude urruti: % 79,7k irakurri du libururen bat eta % 50,8k lau liburu edo gehiago. Hortik gora edo behera, jaitsi egiten da irakurketa-ohitura, bereziki 64 urtetik gora.

- Unibertsitate-ikasketak dituztenak dira gehien irakurtzen dutenak: % 89,2k libururen bat, gutxienez. Eta % 62,5ek lau liburu edo gehiago —oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean, % 18,5ek—.

- Euskal hiztunek irakurtzeko ohitura handiago dute: % 81ek irakurri du libururen bat, gutxienez —erdaldunen % 72,7k—.

Liburuak				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Liburuak	
LURRALDE-EREMUA	
	Arabako biztanleriak irakurtzeko ohitura handiagoa du: % 79,8k libururen bat irakurri du, gutxienez, azken 12 hilabeteetan. Eta % 51,1ek lau liburu edo gehiago. Ehuneko horiek baxuagoak dira Bizkaian –% 76,1 eta % 46,7, hurrenez hurren– eta Gipuzkoan – % 73,8 eta % 48,6–.


Irakurketa-maiztasuna

Azken 12 hilabeteetan liburu bat, gutxienez, irakurri dutenen artean (lagin osoaren %75,9), % 40,4k egunero (edo ia egunero) irakurri du

azken hiru hilabeteetan, eta % 25,2k astean behin edo gehiagotan.

24. grafikoa.

Azken 3 hilabeteetan, zenbatean behin irakurri dituzu halako liburuak (%).



Unibertsoa: azken 12 hilabeteetan liburu bat edo gehiago irakurri dutenak.



Aldagai nagusien arabera aztertuz, ondorengoa azpimarratu daiteke:

- Helduenen artean nabarmentzen da egunero edo ia egunero irakurtzeko ohitura dutenen pisua: 55-64 urtekoen artean % 54,1 eta 64 urtetik gorakoen artean % 48.
- Emakumeen artean gizonezkoen artean baino altuagoa da egunero irakurtzen dutenen pisua: % 42,2 eta % 36,1, hurrenez hurren.
- Erdaldunen artean euskaldunen artean baino altuagoa da egunero irakurtzeko ohitura dutenen pisua: % 42,2 eta % 37,6, hurrenez hurren.

Irakurketa-maiztasuna				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Irakurketa-maiztasuna	
LURRALDE-EREMUA 	Astean behin gutxienez irakurtzen dutenen pisua antzekoa da hiru lurralde-historikoetan: % 62,3 Araban, % 66 Bizkaian eta % 66,4 Gipuzkoan.


Irakurketa-euskarriak

Azken 12 hilabeteetan liburu bat edo gehiago irakurri dituztenen artean, ia hiru laurdenak paperean irakurtzen du beti edo ia beti. % 12,8k beti edo ia beti liburu elektronikoan. % 15,1ek paperean eta liburu elektronikoan antzera.

- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da batez ere liburu elektronikoan irakurtzen dutenen pisua: % 7,3 oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean eta % 15 unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.
- 45-54 urtekoak eta 55-64 urtekoak dira liburu elektroniko gehien erabiltzen dutenak: % 16,3 eta % 16,9, hurrenez hurren.
- 10 mila biztanlez beherako herriak nabarmendu dira liburu elektroniko gutxi erabiltzen delako: % 8,5.

25. grafikoa.

Irakurketa-euskarriak (%).



Unibertsoa: azken 12 hilabeteetan liburu bat edo gehiago irakurri dutenak.

Irakurketa-euskarriak

IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Irakurketa-euskarriak

LURRALDE-EREMUA



Liburu elektronikoa erabiltzen dutenen pisuagatik nabarmendu da Gipuzkoa: % 15,3 –Araban % 13 eta Bizkaian % 11,2—.




3.3.2. Liburutegira joatea

Biztanleen % 40,6 joan da liburutegira, behin gutxienez, erreferentziazko urtean. % 27,8, berriz, lautan baino gehiagotan joan da. 2018arekiko,

puntu inguruko jaitsiera dago datu horietako bakoitzean.

26. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan liburutegira joateko maiztasuna (2018-2023) (%).



Liburutegira joateari dagokionez, adinaren, ikasketa-mailaren, herriaren tamainaren eta euskararen ezagutzaren arabera aldeak antzeman daitezke:

- 15-24 urtekoen %53,6 lau aldiz edo gehiagotan joan da liburutegira azken urtean, 64 urtetik gorakoaren artean, aldiz, % 74,1 ez da behin ere joan.
- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenak dira maiztasun handienarekin joan direnak liburutegira: % 36,2 lautan baino gehiagotan. Oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean, aldiz, % 80,6 ez da behin ere joan liburutegira.
- Euskal hiztunak gehiago joan dira liburutegira: % 53,4 behin behintzat joan da liburutegira eta % 38,7 lautan baino gehiagotan —erdaldunen artean % 32,9 eta % 21,2, hurrenez hurren—.
- 10-25 mila eta 25-50 mila biztanleko herrietan liburutegira azken 12 hilabeteetan inoiz joan ez direnak nabarmentzen dira: % 65,6 eta % 63,6, hurrenez hurren.

Liburutegira joatea				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Liburutegira joatea	
LURRALDE-EREMUA	
	Bizkaian altuxeagoa da liburutegira inoiz joan ez direnen ehunekoa (% 76,2),—Araban % 66,8 eta Gipuzkoan % 70,4—.


Liburutegira ez joateko arrazoiak

Azken urtean liburutegira behin ere joan ez direnei (biztanleen % 59,4) arrazoiaren inguruan galdetu zaie. % 80,3k liburutegira joateko beharrik sentitzen ez duela adierazi du lehen arrazoi gisa; irekiera-orduak eta -egunak ez datozkiola ondo hautatu du % 7k eta ez zaiola liburutegiaren informazioa iristen %5,6k.

Bigarren arrazoi gisa, liburutegiak sustatutako jarduerak ez direla interesgarriak hautatu du % 29,9k, liburutegira joateko beharrik ez duela sentitzen %28,9k, eta irekiera-orduak eta -egunak ez datozkiola ondo % 25,8k.

27. grafikoa.

Liburutegira ez joateko arrazoiak (1. arrazoi eta 2. arrazoi) (%).



Unibertsoa: azken 12 hilabeteetan liburutegi batera inoiz joan EZ direnak.



Lehen arrazoietan nagusia liburutegira joateko beharrik ez sentitzea dela ahaztu gabe, bigarren arrazoietan antzeman daitezke aldagaien araberako alderik esanguratsuenak:

- Liburutegira joateko beharrik ez duela sentitzen diotenen artean 25-34 urte artekoak nabarmendu dira: % 42,2. Liburutegiak sustatutako jarduerak ez direla interesgarriak, aldiz, 64 urtetik gorakoen % 38k eta irekiera-ordutegia eta -egunak ez datozkiola ongi 35-44 urte artekoen % 9,8k eta 45-54 artekoen % 9,5ek. Liburu-eskaintzak bere beharrak asetzen ez dituela adierazi du 15-24 urte artekoen % 35ek.

- Oinarrizko ikasketak ez dituztenak nabarmendu dira liburutegien espazio fisikoa ez dela erakargarria esateagatik: % 12,6k.

- Hamar mila biztanletik azpiko herrietan %46,9k ez du liburutegira joateko interesik. Liburu-eskaintzak bere beharrak asetzen ez dituela adierazi du 10-25 mila tamainako herrietako biztanleen %29,4k eta liburutegiak sustatutako jarduerak ez direla interesgarriak 25-50 mila biztanleko herrietako % 37k.

Liburutegira ez joateko arrazoiak				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Liburutegira ez joateko arrazoiak	
LURRALDE-EREMUA 	Arabian liburutegira joan ez direnen % 34,7k adierazi du liburutegiak sustatutako jarduerak ez direla interesgarriak — % 29,1 Bizkaian eta % 29,3 Gipuzkoan—. Bestalde, Araban % 2,8k soilik adierazi du irekiera-ordutegia eta -egunak ez datozkiola ongi (Bizkaian % 6,3k eta Gipuzkoan % 7,9k). Halaber, Araban besteetan baino altuagoa da liburutegien informaziorik iristen ez zaiola diotenak: % 9,7.


Liburutegietako kultura-jarduerak

Gutxienez behin liburutegira joan direnak erreferentziatzat hartuta, % 27,3 noizean behin gutxienez joan da kultura-jardueraren bat

(maileguak edo liburu-aretoko kontsultak ez direnak) tarteko. 2018koaren oso antzekoa da datu hori.

28. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan liburutegietako kultura- jardueretara joateko maiztasuna (2018-2023) (%).



Unibertsoa: azken 12 hilabeteetan liburutegi batera inoiz joandakoak.

- 55-64 urtekoak dira maileguak edo liburu-aretoko kontsultak ez diren liburutegiko beste jarduera batzuetara gehien joan direnak (% 38,1). Beste muturrean, 15-24 urtekoen artean, % 22,4 joan da halako jardueretara.
- Unibertsitate-ikasketak dituztenen % 31,7 joan da liburutegietako kultura jardueretara. Beste muturrean, oinarrizko ikasketarik ez dutenen artean, % 20,5.
 - 50 mila biztanlez gorako herrietan gainerakoetan baino handiagoa da inoiz joan ez direnen ehunekoa (% 78,4).

Liburutegietako kultura-jarduerak				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA



Liburutegietako kultura-jarduerak

LURRALDE-EREMUA



Arabako herritarren artean altuagoa da maileguak edo liburu aretoko kontsultak ez diren liburutegiko beste jarduera batzuetara noizbait joan direnen pisua: % 33,2 –Bizkaian % 23,8 eta Gipuzkoan % 29,6–.


Liburu edo film digitalen mailegua

Biztanleriaren % 7,4k erabili du liburutegietako liburu edo film digitalen mailegu-zerbitzua, azken urtean: % 4,7k liburu digitalena, % 1,3k

film digitalena eta % 1,4k biena. Horrez gain, azpimarratzeko modukoa da % 12,4k ez duela zerbitzua ezagutzen.

29. grafikoa.

Liburu edo film digitalen mailegua (%).



- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da liburu eta film digitalen mailegu-zerbitzua erabiltzen dutenen pisua: % 1,1 oinarrizko ikasketarik ez dutenen artean eta % 9,4 unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.
- 45-54 eta 55-64 urte artekoak dira liburu eta film digitalen mailegu-zerbitzua gehien

erabiltzen dutenak: % 10,2 eta %10,8, hurrenez hurren. Adinekoak, berriz, gutxien erabiltzen dutenak: 64 urtetik gorakoak artean % 2,7.

- Hiriburuetan erabiltzen da gehien liburu eta film digitalen mailegu-zerbitzua: % 10,6.

Liburu edo film digitalen mailegua				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Liburu edo film digitalen mailegua	
LURRALDE-EREMUA	
	Araban erabiltzen da gehien liburu edo film digitalen mailegu zerbitzua, % 11 —Bizkaian % 6,9 eta Gipuzkoan % 6,4—.

03. 4. Hedabideak


3.4.1. Egunkariak eta aldizkariak

Biztanleriaren %68,4k egunero edo astero irakurtzen ditu egunkariak. Aldizkariak % 25,7k irakurtzen ditu. Bien kontsumoak behera egin du

2018ko datuekin alderatuta: % 77,4 eta % 33 ziren, hurrenez hurren.

30. grafikoa.

Egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko maiztasuna (2018-2023) (%).






Hedabideen kontsumitzaileen artean, hamarretik ia zortzik Internet erabiltzen du, noizean behin gutxienez, egunkaria irakurtzeko. Aldizkariak irakurtzeko, aldiz, %39,7k. Interneten erabilerak

gora egin du nabarmen bi kasuetan, 2018arekin alderatuta —% 56,1 eta % 16,6 ziren, hurrenez hurren—.

31. grafikoa.

Egunkariak eta aldizkariak euskarri digitalean irakurtzeko maiztasuna (2018-2023) (%).



Egunkarien irakurketa-mailak

Ikasketa-mailarekin eta adinarekin lotutakoak dira alderik nabarmenenak, baina sexuaren arabera diferentziak ere badaude.

- Zenbat eta helduagoak izan herritarrak, orduan eta handiagoa egunkariak irakurtzeko ohitura dutenen pisua: % 16,7k irakurtzen ditu egunero 15-24 urtekoen artean eta % 56,8k 64 urtetik gorakoen artean.
- Ikasketa-mailan gora egin ahala, gero eta handiagoa da egunkariak egunero irakurtzeko ohitura dutenen pisua: % 32,8 oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean eta % 55,8k unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.
- Egunkariak irakurtzeko ohitura handiagoa dute gizonezkoek: % 75,2k irakurtzen ditu asteen behin gutxienez —emakumeen artean % 60k—.

Egunkarien irakurketa-mailak

IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Egunkarien irakurketa-mailak

LURRALDE-EREMUA	
	Gipuzkoako herritarren artean zertxobait handiagoa da egunkaria egunero irakurtzeko ohitura dutenen pisua: % 49,7 – Araban % 45,7 eta Bizkaian % 45,2—.

Aldizkarien irakurketa-mailak

Ikasketa-mailak eta adinak eragiten dituzte alderik handienak:

- Aldizkariak irakurtzeko ohiturarik txikiena dutenak gazteenak dira: % 12,8k irakurtzen ditu astero edo egunero 15-24 urtekoen artean; aldiz, % 28,9ra igotzen da 45 urtetik gorakoen artean.

- Unibertsitate-ikasketak dituztenak dira aldizkariak irakurtzeko ohitura handiena dutenak: % 29,9k irakurtzen ditu astero edo egunero. Oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean, % 20,7 dira.

Aldizkarien irakurketa-mailak

IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Aldizkarien irakurketa-mailak

LURRALDE-EREMUA	
	Aldizkariak irakurtzeko ohitura handiagoa dute Gipuzkoako biztanleek: % 29k irakurtzen ditu astero edo egunero, Arabakoek eta, bereziki, Bizkaikoek baino —% 26 eta % 23,6, hurrenez hurren—.




3.4.2. Telebista eta irratia

Biztanleen % 71,8k ikusten du telebista egunero; irratia, % 56,5ek entzuten du egunero. Bi komunikabideen eguneroko kontsumoa hamar

puntu jaitsi da 2018ko datuekin alderatuta (% 81,3 eta % 66,2 hurrenez hurren).

32. grafikoa.

Telebista eta irratia kontsumitzeko maiztasuna (2018-2023) (%).




Telebista edo irratia kontsumitzeko Internet erabiltzea ez ohikoagoa da, egunkarien edo aldizkarien kasuekin alderatuta. Hala ere, hedabideak kontsumitzen dituztenen % 19,1ek Internet erabili izan du, noizean behin gutxienez, telebista ikusteko. Gehixeago dira irratia entzuteko erabiltzen dutenak: % 22,6.

2018ko datuekin alderatuta, irratia entzuteko Internet erabiltzeko ohiturak igoera esanguratsua izan du, % 16,4koa baitzen orduan. Telebistan, aldiz, hiru puntuko jaitsiera izan da.

33. grafikoa.

Telebista eta irratia modu digitalean kontsumitzeko maiztasuna (2018-2023) (%).



Unibertsoa: hedabideak, egunero edo astero kontsumitzen dituztenak.

Telebistaren erabilera-mailak

Adinaren arabera da diferentziarik handiena. Belaunaldi-jauziarekin lotuta, hain zuzen ere, ikasketa-mailaren eta euskararen ezagutzaren arabera ere antzematen dira aldeak.

- Adinaren arabera aldea oso handia da. Zenbat eta helduagoak izan, orduan eta handiagoa da telebista egunero ikusten dutenen pisua: 15-24 urtekoen artean % 44,3 eta 64 urtetik gorakoen artean % 92,7.
- Hiriburuak nabarmendu dira gainerako udalerri tamainetan baino pisu txikiagoa dutelako telebista egunero ikusten dutenak: % 68,9 —25-50 mila artean % 78—.
- Erdaldunen artean euskaldunen artean baino hamabi puntu handiagoa da telebista egunero ikusten dutenen pisua: % 76,5 eta % 64,2, hurrenez hurren.
- Ikasketa-maila apalenak dituztenak dira telebista gehien ikusten dutenak: % 87,9k egunero ikusten du oinarritzko ikasketarik gabekoen artean. Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean, berriz, % 67k.



Telebistaren erabilera-mailak				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRRIAREN TAMAINA

Telebistaren erabilera-mailak	
LURRALDE-EREMUA 	Telebista egunero ikusten dutenen pisua apur bat altuagoa da Gipuzkoan: % 75,1 —Arabian % 68,3 eta Bizkaian % 70,8—.

Irratiaren erabilera-mailak

Aldagaien araberako azterketa eginez, ondorengo nabarmenduko genuke:

- Adinaren araberako aldeak nabarmenak dira: 15-24 urtekoen % 53,9k inoiz ez edo ia inoiz ez dute entzuten irratia; aldiz, 35 urtetik gora % 20tik behera gelditzen dira irratia inoiz entzuten ez dutenak.

- Ikasketa-maila altuena dutenak dira irratia gehien entzuten dutenak: unibertsitate ikasketak dituztenen % 22,2 soilik dira inoiz entzuten ez dutenak. Aldiz, Goi Mailako Batxilergoa, LOGSE Batxilergoa, UBI dutenak dira irratia gutxien entzuten dutenak, % 33,4k ez du inoiz entzuten.

Irratiaren erabilera-mailak				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRRIAREN TAMAINA

Irratiaren erabilera-mailak	
LURRALDE-EREMUA 	Bizkaian (% 26,5) apur bat handiagoa da irratia inoiz entzuten ez dutenen pisua Gipuzkoa (% 23,8) eta Arabarekin alderatuta (% 20,4).

03. 5.


Museoak eta ondare kulturala

3.5.1. Museoetara joatea

Biztanleen % 54,2k bisitatu du museoren bat azken 12 hilabeteetan. Lau puntuko igoera izan da 2018arekiko.

34. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan museoetara joateko maiztasuna (2018- 2023) (%).



Ikasketa-maila, adina eta euskararen ezagutza dira aldagaien arabera azterketan nabarmentzen direnak:

- Zenbat handiagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da museoetarako asistentzia. Oinarritzko ikasketak dituztenen % 18,1 joan da museoren batera; unibertsitate ikasketak dituztenen artean, berriz, % 71.
- Adinaren arabera aldea ere esanguratsua da: 15-24 urtekoen % 65,9 joan da museoren

batera; 64 urtetik gorakoen artean, aldiz, % 40,2.

- Hiriburuetako biztanleen % 63,8 joan da museoren batera; aldiz, gainerako udalerrri tamainetan ez dira hamarretik bostera iristen noizbait joan direnak.
- Euskal hiztunek museoetara joateko ohitura handiagoa dute: % 63,6 joan da museoren batera. Erdaldunen artean, % 50.



Museoetara joatea				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA


Museoetara joatea	
LURRALDE-EREMUA	
	Gipuzkoan (% 48,2) nabarmentzen da museoetara inoiz joan ez direnen pisua, Arabakoaren (% 40,8) eta Bizkaikoaren (% 43,9) gainetik.

3.5.2. Arte-galerietara joatea

Herritarren % 24,5ek bisitatu du, azken 12 hilabeteetan, arte-galeriaren bat. Sei puntuko igoera izan da, 2018ko datuekin alderatuta.

35. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan arte-galerietara joateko maiztasuna (2018-2023) (%).



Ikasketa-maila eta adina dira alderik handienak eragiten dituztenak. Kasu honetan, hizkuntzaren ezagutzaren eta sexuaren arabera ere, txikiak dira diferentziak.

- Ikasketa-mailaren arabera aldea handia da: oinarritzko ikasketak ez dituztenen % 8,4 joan da arte-galeriaren batera; unibertsitate ikasketak dituztenen artean, aldiz, % 31,9.
- Adinaren arabera ere badago aldea: 15-24 urtekoen % 35,2 joan da arte-galeriaren batera; 64 urtetik gorakoen artean, berriz, % 14,5.

- Hiriburu eta biztanleak nabarmendu dira gainerako bizilekuetatik arte-galerietara gehiago joan direlako: % 29,8 joan da.
- Euskal hiztunak gehiagotan joan dira arte-galerietara (% 31) erdaldunak baino (% 20,5).

Arte-galerietara joatea				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Arte-galerietara joatea	
LURRALDE-EREMUA	
	Ez dago alde esanguratsurik hiru lurraldeen artean.


3.5.3. Monumentu, eraikin edo toki historikoetara joatea

Biztanleriaren % 61,1ek bisitatu du, azken 12 hilabeteetan, monumentu, eraikin edo toki historikoren bat.



36. grafikoa.

Monumentu, eraikin edo toki historikoetara joatea (%).



Ikasketa-maila da diferentziarik handienak eragiten dituen aldagaia:

- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da monumentu, eraikin edo toki historikoetara joan direnen pisua: % 20,1 oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean; % 74,5 unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.
- Adinari dagokionez, 64 urtetik gorakoen artean jaisten da, nabarmen, monumentu, eraikin edo toki historikoak bisitatu

dituztenen pisua: % 35,9. Beste muturrean, 15-24 urtekoen artean, % 51,2 lau alditan edo gehiagotan joan da.

- Euskal hiztunek erdaldunek baino ohitura handiagoa dute monumentu, eraikin edo toki historikoak bisitatzeko: % 69,9 eta % 55,7, hurrenez hurren.
- Gizonen artean emakumeen artean baino altuagoa da monumentu, eraikin edo toki historikoetara joan direnen pisua: % 66,7 eta % 56,1, hurrenez hurren.

Monumentu, eraikin edo toki historikoetara joatea

IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Monumentu, eraikin edo toki historikoetara joatea

LURRALDE-EREMUA



Araban altuagoa da monumentu, eraikin edo toki historikoetara lau alditan baino gehiagotan joan direnen pisua: % 44,8 —% 35,4 Bizkaian eta % 38 Gipuzkoan—.


3.5.4. Museo eta arte-galerietarako bisiten arrazoiak

Oporrak (% 66,1) dira museo, arte-galeria eta monumentu, eraikin edo toki historikoetara joateko arrazoi nagusia. Hogei puntutik gorako igoera dago, gainera, 2018ko datuarekin alderatuta.

Txangoak edo beste herrietara bisitak daude ondoren (% 20,8). Herrian bertan egindako bisitak % 10,8k aipatu ditu, 2018an baino hamar puntu gutxiago.

37. grafikoa.

Museo, arte-galeria eta monumentu eta toki historikoetara joan direnen arrazoiak (2018- 2023) (%).



Unibertsoa: museoetara, arte galerietara eta monumentu edo toki historikoetara bisitak egin dituztenak.

Adina eta ikasketa-maila dira diferentziarik handienak eragiten dituzten aldagaiak:

- Adinean gora egin ahala, jaitsi egiten da oporren nagusitasuna, arrazoiaren artean: 15-24koen artean % 76,3 eta 64 urtetik gorakoaren artean % 44,6. Txangoek eta herrian bertan egindako bisitek —64 urtetik gorakoaren kasuan, batez ere— hartzen dute pisu handiagoa.

- Zenbat eta handiagoa izan ikasketa-maila, orduan eta txikiagoa da herrian bertan egindako bisiten pisua: % 21,6 oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean, % 9,2 unibertsitate-ikasketak dituztenen artean. Halaber, oporren pisua txikiagoa da oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean gainerakoaren artean baino.



Museo eta arte-galerietarako bisiten esparrua				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Museo eta arte-galerietarako bisiten esparrua	
LURRALDE-EREMUA 	Gipuzkoan altuagoa da oporren garrantzia, arrazoen artean: % 72,8 – Araban % 61,9 eta Bizkaian % 63,4—.

03. 6.

Laburpen konparatiboa

Praktika jakin batzuk egiten diren maiztasunarekiko zeharkako begirada batek kultura-jardueren artean lau bloke detektatzea ahalbidetzen du, azken 12 hilabeteetako praktika kontuan izanik.

Biztanleriaren guztizkoaren % 60aren gainetik honako hauek daude:

- Liburuen irakurketa (% 75,9).
- Kontzertuetara joatea (% 64,8).
- Zinemara joatea (% 63,4).

Bigarren, % 40tik % 60ra bitarteko portzentajeekin, honako hauek ditugu:

- Antzerkira joatea (% 57,9).
- Museoetarako bisitak (% 54,2).
- Liburutegietara joatea (% 40,6).


Ondoren, % 20tik % 40ra bitarteko portzentajeekin, honako hauek ditugu:

- Dantza-ikuskizunetara joatea (% 32,5).
- Arte-galerietara joatea (% 24,5).

Hortik behera dago bideojokoetan jolastea (% 16).

38. grafikoa.

Kultura-praktika desberdinak egiteko maiztasuna (2018-2023) (%).





Gainera, praktika desberdinen 2008-2018-2024 aldiko alderaketa historiko bat egiteko aukera ere badago. Zehazki, grabatutako musika entzutea (egunero), dantza-ikuskizunak ikustea (azken urtean), bertso-saioetara joatea (azken urtean), aldizkariak irakurtzea (astean hainbat aldiz) eta egunkariak irakurtzea (astean hainbat aldiz) alderatu daitezke:

- Grabatutako musika entzuteko ohiturak apur bat gora egin zuen 2018an eta puntu bat jaitsi da 2023an.
- Dantza-ikuskizunak ikusteko ohiturak igoera handia izan zuen 2018an, eta igoera txikiago bat 2023an.


- Bertso-saioak entzuteko ohiturak ere igoera izan zuen 2018an, eta jaitsiera 2023an.

- Aldizkariak irakurtzeko ohiturak beheranzko joera darama (17 puntu inguruko jaitsiera, guztira).

- Egunkariak irakurtzeko ohiturak ere beheranzko joera darama (16 puntu inguruko jaitsiera, guztira).

39. grafikoa.

Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren bilakaera (2008-2018-2023) (%).



O4.

Sormenarekin lotutako parte-hartze kulturala

O4. 1.


Amateur mailako praktika artistikoak

Biztanleriaren % 43,3k adierazi du gutxienez urtean behin egin duela sormenezko jardueraren bat, amateur mailakoa, hala nola idazketa,

margolaritza, dantza, artisautza edo beste hainbat. 2018ko datuarekin alderatuz (% 32,6), hamar puntuko igoera izan da.

40. grafikoa.

Amateur mailako kultura-praktikak azken urtean (2018-2023) (%).





Aldagaien arabera azterketa eginez, ondorengo nabarmenduko genduz:

- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da sormenezko jarduerak egin dituztenen pisua: % 23,9 oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean; % 50,9 unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean.

- Gazteenek neurri handiagoan egiten dituzte sormen-jarduerak: 15-24 urtekoen artean % 59,5ek. 64 urtetik gorakoan artean, aldiz, % 32,3ra jaisten da.
- Euskal hiztunek erdaldunek baino gehiago egiten dituzte sormen-jarduerak: % 49,6k eta % 39,5ek, hurrenez hurren.

Amateur mailako praktika artistikoak				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA


Amateur mailako praktika artistikoak	
LURRALDE-EREMUA 	Gipuzkoa (% 40,7) beste bi lurralde eremuen azpitik dago, sormenezko jarduerak egiteari dagokionez: Bizkaian % 43,7 eta Araban % 47,8.

Eskulanak, artisautza edo arte plastikoak da amateur mailako praktika zabalduena, sormen jarduerak egiten dituztenen % 40,5ek egiten du. Hala zen 2018an ere, baina sei puntuko igoera izan da, gainera (% 34,2 zen orduan).

% 20tik gora daude marraztea edo margotzea (% 29,2), idaztea (% 28,2), argazkiak ateratzea (% 21,4) eta musika-tresna bat jotzea (% 20,8). % 10 eta % 20 artean daude dantza eta baleta (% 20) eta bideoak egitea (% 12,3). % 10aren azpitik, azkenik, koru edo musika-talde batean abestea, beste ikus entzunezkoak, antzerkia, irakurketa klubak, bertsolaritza eta bestelakoak.

41. grafikoa.

Amateur mailako kultura-praktika nagusien ranking-a (2018-2023) (%).



Unibertsoa: urtean behin gutxienez sormen-jardueraren bat egiten dutenak.

Hiru jarduera nagusienekin, aldagaien arabera azterketa ere egin dugu:

- Eskulanak eta artisautza egiten dituztenen pisua emakumeen artean (% 49,5), 55-64 urte artean (% 50,7), oinarrizko ikasketak ez dituztenen (% 50,3) eta erdaldunen (% 48,9) nabarmentzen da.
- Marraztu edo margotzea emakumeen artean (% 34,5), 15-24 (% 40,2) eta 25-34 (% 41,1) urtekoen artean, hiriburuetan (% 35,6), oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean (% 37,0).
- Idaztea 55-64 (% 33,1), hiriburuetan (% 31,2) eta unibertsitate ikasketak dituztenen artean (% 33,3).




Amateur mailako praktika artistikoak				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

2008-2023 aldiko bilakaera historikoa eginez⁴, igoera nabarmena ikusten da eskulanetan eta artisautzan, % 4,6tik % 17,5era. Azken bost urteko epean, bestalde, idazketa eta marrazketa igo dira

bereziki (sei puntu, bietan), baita argazkilaritza, eta musika tresna bat jotzea ere.

42. grafikoa.

Amateur mailako praktiken bilakaera (2008-2018-2023) (%).



4. 2023 eta 2018 urteetan ez bezala, praktikak bakarka edo taldean egitea bereizten zen 2008. urtean. Bi aukeren portzentajeak gehitu dira konparazioa egiteko.

O4. 2.


Arte trebakuntza

Biztanleriaren % 19,4 joan da gai artistiko eta kulturei buruzko hitzaldi, konferentzia edo ikastaroetara, lanetik edo ikasketetatik kanpo.

2018ko datuarekiko (% 27,8) bederatzi puntuko jaitsiera izan da.

43. grafikoa.

Ikastetxetik edo instituziotik kanpo, artearekin edo kulturekin lotuta jardueraren bat egin dutenak (2018-2023) (%).



Ikasketa-maila da diferentziarik handiena eragiten duen aldagaia. Adina eta euskararen ezagutza ere nabarmendu daitezke.

- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da hitzaldi, konferentzia edo ikastaroetara joan direnen pisua: % 4,7 oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean; % 27 unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean.

- 25-34 urtekoak dira hitzaldi, konferentzia edo ikastaroetara gehien joan direnak: % 25,3 joan da, % 7,5 lautan baino gehiagotan.
- Euskal hiztunak erdaldunak baino gehixeago joan dira hitzaldi, konferentzia edo ikastaroetara: % 23,6 eta % 16,8, hurrenez hurren.



Arte trebakuntza				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Arte trebakuntza	
LURRALDE-EREMUA	
	Arabako herritarrak joan dira gehien hitzaldi, konferentzia edo ikastaroetara (% 22,9). Oso gertu daude Bizkaikoak (% 19,2) eta Gipuzkoakoak ere (% 18,1).


O4. 3.

Kultura-elkarteetan parte-hartzea

Biztanleriaren % 13,4ak parte hartzen du, modu aktiboan, kultura-elkarteen batean. 2018ko datuarekiko ia bi puntuko jaitsiera izan da.

44. grafikoa.

Kultura-elkarte batean edo gehiagotan parte hartzen duten pertsonak (2018-2023) (%).



Ikasketa-maila da diferentziarik handiena eragiten duen aldagaia. Euskararen ezagutza eta sexua ere nabarmendu daitezke:

- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da kultura-elkarteetan modu aktiboan parte hartzen dutenen pisua: % 7,2 oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean; % 19,3 unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean.

- Euskal hiztunek erdaldunek baino gehixeago parte hartzen dute kultura-elkarteetan: % 18,9k eta % 10ek, hurrenez hurren.
- 10 mila biztanletik beherako herrietan nabarmendu da kultura-elkarteetan modu aktiboan parte hartzen dutenen pisua: % 19,7.
- Gizonezkoek emakumezkoek baino gehixeago parte hartzen dute kultura-elkarteetan: % 15,5 eta % 11,4, hurrenez hurren.

Kultura-elkarteetan parte hartzea				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Kultura-elkarteetan parte hartzea	
LURRALDE-EREMUA 	Kultura-elkarteetako parte-hartze mailari dagokionez ez dago ia alderik lurralde historikoetan artean.


Kultura-elkarteetan aktiboki parte hartzen dutenen artean, ia lautik batek sustapen kulturalako jarduera orokorra egiten duten elkarteetan parte hartzen du (% 39,7), % 29k kultura herrikoiarekin lotutako elkarteetan

(euskal dantzak, bertsolaritza, koruak, folklorea...) eta % 21,1ek praktika artistikoekin lotutakoetan (antzerkia, literatura, pintura, artisautza...).



45. grafikoa.

Kultura-elkarte horiek zein arlotakoak diren (%).




Unibertsoa: kultura elkarteetan parte-hartzen dutenak.

2008-2018-2024 aldiko bilakaera historikoan, sei puntuko igoera izan zen 2008tik 2018ra, baina bi puntuko jaitsiera, ondoren.

46. grafikoa.

Kultura-elkarteren batean parte hartzen duten pertsonen kopuruaren bilakaera (2008-2018-2023) (%).



05. Praktika digitalak

05. 1.


Internet erabiltzea

Biztanleriaren % 83,9k adierazi du Internet edo online zerbitzuak erabiltzen dituela. Oso hedatuta dagoen praktika da, eta gainera, zortzi puntuko igoera izan da 2018ko datuarekiko

(% 75,6). Kontuan hartu behar da, hala ere, galdera ez zela modu berean egin, eta Internetera modu erregularrean sartzen ziren herritarrei egiten diela erreferentzia 2018ko datuak.

47. grafikoa.

Internet eta online zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak (2018-2023) (%).



Interneten erabilera edo erabilerarik eza oso lotuta dago adinarekin. Eta horren ondorioz, neurri batean, ikasketa-mailarekin ere bai.

- 64 urtetik gorakoen artean % 53,5ekoa da Internet edo online zerbitzuak erabiltzen dituztenen pisua. Hortik beherako adin-tarteetan, % 86tik gorakoa. Eta gazteenen adin-tarteetan, % 99tik gorakoa.
- Oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean, % 33,6koa da Internet edo online zerbitzuak

erabiltzen dituztenen pisua. Hortik gorako ikasketa-mailetan, % 70etik gorakoa.

- Emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino baxuagoa da Internet erabiltzen dutenen pisua: % 79,3koa eta % 88,7koa, hurrenez hurren.
- Euskal hiztunen artean erdaldunen artean baino altuagoa da Internet erabiltzen dutenen pisua: % 89,2koa, % 80,6ren aurrez aurre.



Internet erabiltzea				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

05. 2.

Kultura-praktika digitalak


Internet eta online zerbitzuak erabiltzen dituzten herritarrak aintzat hartuta, zer praktikatarako erabiltzen dituzten aztertu dugu.

- Hamarretik zortzik baino gehiagok erabiltzen du Internet egunkariak edo aldizkariak irakurtzeko (% 83,6) edo kultura-diziplinei buruzko informazioa bilatzeko (% 80,6). Hurrengo erabilerak dira: online musika entzuteko (% 78,3) edo telesailak eta filmak ikusteko (% 70,3). 2018an ere ranking-eko lehen tokietan ageri ziren praktika horiek.

- Bigarren multzo batean daude *podcastak* entzutea (% 44) eta *streamerrak*, *youtuberrak*, *tiktokerrak*, *instagramerrak* edo bestelako sareetako sortzaileak jarraitzea (% 33,7). Azkenik, liburuak irakurri eta deskargatzea dago (% 25,3).
- Biztanleriaren laurdenak baino gutxiagok aipatu ditu ikuskizun eszenikoak zuzenean Interneten ikustea (% 22), bideojokoetan jolastea (% 15,6) eta bisita birtualak egitea museo, erakusketa eta/edo monumentuetara (% 12,1).

48. grafikoa.

Kultura-praktika digitalen intzidentzia-maila biztanlerian azken hiru hilabeteetan (2018-2023) (%).



Praktika nagusiak aldagaien arabera aztertuz, ondorengo nabarmendu daiteke:

- Albisteak, egunkariak edo aldizkariak irakurtzen dituztenak nabarmentzen dira 45-54 urte artean (% 88), gizonen artean (% 86,5) eta unibertsitate-ikasketak dituztenen artean (% 86,3).
- Musikari, zinemari, liburuei eta abarri buruzko informazioa bilatzen dutenak 15-24 urtekoen artean (% 90,1), unibertsitate-ikasketak dituztenen artean (% 89,2) eta euskal hiztunen artean (% 87).
- Musika online entzuten dutenak 45 urtez azpiko adin taldeetan (15-24 urtekoen artean % 98,8; 25-34 urtean % 89 eta 35-44 urtean % 78,9), unibertsitate mailako ikasketak dituztenen artean (% 77,2) eta euskal hiztunen artean (% 77,4).
- Telesailak edo filmak ikusten dituztenak 44 urtez azpiko adin taldeetan (15-24 urtekoen artean % 94,2), unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean (% 73,8) eta euskal hiztunen artean (% 74,9).
- Podcastak entzuten dituztenak 15-24 urte eta 25-34 urtekoen artean (% 69,7 eta % 61,1, hurrenez hurren), unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean (% 53,4) eta euskal hiztunen artean (% 54,7).

Kultura-praktika digitalak

LURRALDE-EREMUA



Podcastak entzuten dituztenen eta musika online entzuten dutenen pisuagatik nabarmentzen da Araba (% 50,9 eta %69,1, hurrenez hurren).

05. 3.

Kultura-edukia duten plataforma digitala harpidetzea

Internet eta online zerbitzuen erabiltzaileen hiru laurdenak du kontu bat kultura-edukia duen plataforma digitalen batean.


% 8,8 besterik ez da, gainera, doako kontuak bakarrik dituenak. % 65,5ek ordainpeko kontuak ditu, ordainpekoak bakarrik edo doakoekin batera.

Biztanleria osoarekiko, % 62,3k du konturen bat plataforma digitala. Igoera oso handia izan da 2018ko datuarekiko, % 30,3 baitzen orduan. Orokortu egin den praktika bat dela esan daiteke.



49. grafikoa.

Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak, biztanleria-taldean arabera (2018-2023) (%).



Adina da diferentziarik handienak eragiten dituen aldagaia. Baina antzematen dira, dena den, ikasketen, udalerrriaren tamainaren eta euskararen ezagutzaren arabera ere.

- Zenbat eta gazteagoak izan herritarrak, orduan eta handiagoa da kultura-edukia duten plataforma digitaletan harpide direnen pisua: 15-24 urtekoen artean % 95,6 eta 64 urtetik gorakoaren artean % 43,7.

- Unibertsitate-ikasketak dituztenen % 77k du kontu bat gutxienez; oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean, berriz, % 46,8k.
- Hiriburuetan % 77k du kontu bat; 10 mila biztanlez beherako herrietan, aldiz, % 69k.
- Euskal hiztunen artean erdaldunen artean baino handiagoa da kontu bat dutenen pisua: % 79,4 eta % 70,9, hurrenez hurren.

Kultura-edukia duten plataforma digitaletara harpidetzea

IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Kultura-edukia duten plataforma digitaletara harpidetzea

LURRALDE-EREMUA	
	Lurralde-eremuen arteko diferentzia txikia da. Nolanahi ere, plataformetan harpidedun direnen pisua altuxeagoa da Araban: % 79,2 –Bizkaian % 72,9 eta Gipuzkoan % 74,7—.


Kultura-edukien tipologia

Eduki kultureleko plataforma digitalen erabiltzaile diren herritarrek horien bidez zer eduki-mota kontsumitzen duten aztertuz, musika entzuteko plataformak dira nagusi (% 84,5), filmak,

telesailak eta bideoak ikusteko batera (% 81,3). Baina indarrez sartu dira *podcastak* entzuteko plataformak ere (% 49,8).

50. grafikoa.

Eduki kultureleko plataforma digitaletara sarbidea duten herritarrek zer eduki-mota kontsumitzen duten horien bitartez, biztanleria-taldean arabera (2018-2023) (%).



Unibertsoa: Internet eta online zerbitzuak erabiltzen dituztenak.



Adina da, diferentzia handiarekin, era guztietako plataformen erabileran gehien eragiten duen aldagaia. Oro har, zenbat eta gazteagoak izan herritarrek, orduan eta altuagoa da plataformen erabilera. Salbuespena liburu digitalena da, helduenek erabiltzen baitute gehien.

- Musika entzuteko: 15-24 urtekoen artean % 98,9 eta 64 urtetik gorakoen artean % 61,5.
- Filmak, telesailak eta bideoak ikusteko: 15-24 urtekoen artean % 96,9 eta 64 urtetik gorakoen artean % 80,1.
- Liburu digitalak irakurtzeko: 55-64 urtekoek (% 36,7) erabiltzen dituzte gehien, eta 64 urtetik gorakoek (% 33) ondoren.
- Podcastak entzuteko: 15-24 urtekoek % 66,2 eta 64 urtetik gorakoek % 22,9.

Ikasketa-mailari dagokionez, oinarritzko ikasketak ez dituztenak dira, batez ere, bereizten direnak. Neurri handi batean, adinarekin lotuta:

- Filmak, telesailak eta bideoak ikusteko: % 14,5ek inoiz ez edo ia inoiz ez.
- Podcastak entzuteko: % 77,5ek inoiz ez edo ia inoiz ez.

Euskararen ezagutzaren arabera ere badaude aldeak, kasu batzuetan:

- Musika entzuteko: euskal hiztunen % 91,5 eta erdaldunen % 80.
- Podcastak entzuteko: euskal hiztunen % 59,4 eta erdaldunen % 32,5.

Kultura-educien tipologia				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Kultura-educien tipologia	
LURRALDE-EREMUA 	Ez dago alde nabarmenik lurralde bateko edo besteko herritarrek plataforma digitaletan kontsumitzen duten kultura-educiei dagokienez.

05. 4.

Sare sozialak parte-hartze kulturalen


Interneten eta online zerbitzuen erabiltzaileen artean —lagin osoaren % 83,9—, sare sozialen ondorengo erabilera egiten dute:

- % 23,8k beste artista, profesional edo kultura-zale batzuk ezagutu edo haiekin konektatzeko erabiltzen ditu.
- % 19,5ek beste eragile batzuen material artistikoa partekatzeko.
- % 13,3k arteari eta kulturari buruzko iritzia emateko.
- % 12,7k norberak sortutako material artistikoa partekatzeko.

2018ko datuekin alderatuta, beste artista, profesional edo kultura-zale batzuk ezagutzeak aurrea hartu dio beste eragileen material artistikoa partekatzeari.

51. grafikoa.

Ohiko internauten artean, sare sozialen erabilera-moten ranking-a (2018-2023) (%).



Unibertsoa: Internet eta online zerbitzuetako erabiltzaileak.



06.

Euskarazko parte-hartze kulturala

06. 1.


Euskara jakitea

Biztanleriaren % 37,7 da euskal hiztuna, euskara ondo edo nahiko ondo hitz egiten duena. Puntu

bateko baino gehiagoko igoera izan da 2018ko datuarekiko.

52. grafikoa.

Euskararen ezagutza-maila, gaitasun ezberdinen arabera (2018-2023) (%).



- Zenbat eta gazteagoak izan herritarrak, orduan eta handiagoa da euskal hiztunen pisua: 15-24 urtekoen artean % 71,6 eta 64 urtetik gorakoaren artean % 17,5.
- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da euskal hiztunen pisua: % 17,6 oinarritzko ikasketak dituztenen artean eta % 41,8 unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.
- 10-25 mila biztanle arteko herrietan hamarretik lau biztanle baino gehiago da euskal hiztuna (% 46,2). Hiriburuetan, aldiz, % 23 eta 50 mila biztanletik gorako herrietan % 17,8.
- Gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino altuagoa da euskal hiztunen pisua: % 36 eta % 26,7, hurrenez hurren.

Euskara jakitea

IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Euskara jakitea

LURRALDE-EREMUA




Alde nabarmenak daude, lurralde-eremuen arabera, euskal hiztunen pisuari dagokionez: Gipuzkoan % 47 da euskal hiztuna, Araban % 20 eta Bizkaian % 24,6.

2008ko datuak abiapuntutzat hartuta, euskararen ezagutzaren bilakaera positiboa izan dela ikus daiteke, % 29,4tik % 37,7ra igaro baita.

53. grafikoa.

Biztanleria euskal hiztunaren bilakaera (2008-2018-2023) (%).





06. 2.


Euskarazko parte-hartze orokorra

Euskal Herriko biztanleriaren % 22,1ek parte hartzen du euskarazko kultura-jardueretan. Eta

euskal hiztunen artean, % 51,6k. 2018koak baino pixka bat baxuagoak dira datu horiek.

54. grafikoa.

Normalean euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen dutela esaten duten pertsonak, biztanleria-taldean arabera (2018-2023) (%).



Euskararen ezagutzak ia erabat baldintzatzen du euskarazko parte-hartze kulturala. Diferentzia gehien markatzen duen aldagaia da, beraz. Hala ere, kultura-praktika bakoitzaren ezaugarri desberdinek ere eragiten dute, ez baita gauza bera musika entzutea edo liburu edo aldizkari bat irakurtzea, bertso-saio batera joatea edo euskarazko antzerkia ikustea. Zenbat eta testualagoa izan kultura-praktika, orduan eta zailagoa izango da euskararen gaitasun mugatua dutenentzat.

Aldagaien araberako azterketak alde esanguratsuak erakusten ditu, hizkuntzaren ezagutzaz gain, beste zenbaitetan ere: adina, udalerraren tamaina, ikasketa-maila edo sexua.

- Gazteenek parte-hartzen dute gehien euskarazko kultura-jardueretan: 15-24 urtekoen artean % 39,8k. Beste muturrean, 64 urtetik gorakoen artean, % 8,7k.
- 10 mila biztanlez beherako herriek dute euskarazko parte-hartzerik handiena: % 29,7. 50 mila biztanlez gorakoek, aldiz, txikiena: % 11,6.
- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenek parte-hartzen dute gehien euskarazko kultura-jardueretan: % 34k. Beste muturrean, oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean, % 6,1ek.
- Gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino zazpi puntu handiagoa da euskarazko parte-hartzea: % 25,8 eta % 18,5, hurrenez hurren.

Euskarazko parte-hartze orokorra			
IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Euskarazko parte-hartze orokorra	
LURRALDE-EREMUA	
	Gipuzkoan beste bi lurralde-eremuetan baino handiagoa da euskarazko parte-hartzea: % 28,6 –Araban % 19,3 eta Bizkaian % 18,8–.

06. 3.

Euskarazko kultura-ohiturak

6.3.1. Arte eszenikoak eta musikalak euskaraz

Antzerkia euskaraz


Arte eszenikoen publikoaren artean, % 33,2 euskarazko antzezlan bat ikustera joan da. Ia bost puntuko igoera da hori, 2018ko datuarekin alderatuta (% 27,8).

Arte eszenikoen ikusle diren euskal hiztunei soilik erreparatuz, hamarretik sei (% 57,5) joan da euskarazko antzezlan bat ikustera. Kasu honetan, bederatzi puntukoa da 2018ko datuarekiko igoera (% 48,9).

Biztanleria osoarekiko, % 19,1 joan da euskarazko antzezlan bat ikustera. Puntu bateko jaitsiera izan da 2018ko datuarekiko (% 20,1).

55. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan gutxienez behin euskarazko antzezlanen bat ikustera joan diren pertsonak, biztanleria-taldean arabera (2018-2023) (%).





Adina, udalerriaren tamaina eta ikasketak dira, euskararen ezagutzaren ondoren, betiere, alderik handienak eragiten dituzten aldagaiak.

- 35-44 urte artekoak dira gehien joan direnak euskarazko antzerkiak ikustera (% 52,7). 64 urtetik gorakoak, aldiz, gutxien joan direnak (% 21,9).

- 10 mila biztanlez gorako herrietan joan dira gehien euskarazko antzerkietara (% 42,8). 50 mila biztanlez gorakoak, aldiz, gutxien (% 18,6).

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenak joan dira gehien euskarazko antzerkietara (% 39,6). Oinarrizko ikasketak dituztenak (Batxilergoa, OHO edo DBH eginda), aldiz, gutxien (% 21,6).

Euskarazko kultura-ohiturak			
IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Euskarazko kultura-ohiturak	
LURRALDE-EREMUA 	Gipuzkoako herritarrak joan dira gehien euskarazko antzerkietara (% 45,4), Arabarekiko (% 28,2) eta Bizkaiarekiko (% 28,1) diferentzia handiarekin.


Musika euskaraz

Grabatutako musika entzuten dutenen % 58,3k entzuten ditu euskal musikariak edo musikataldeak. Biztanleria osoa kontuan hartzen badugu, % 48,8k (2018an baino bederatzi puntu gutxiago).

Euskal hiztunak soilik kontuan hartuta, % 88,7koa da portzentajea, 2018an baino ia zazpi puntu handiagoa. Kontuan izan behar da oso hedatuta dagoen praktika dela musika entzutea eta, gainera, hizkuntza ez dela oztopo gaindiezin bat.

56. grafikoa.

Eskuarki euskal musikariak edo musika-taldeak entzuten dituzten pertsonak, biztanleria-taldean arabera (2018-2023) (%).



Adina, udalerriaren tamaina eta ikasketak dira, euskararen ezagutzaren ondoren, alderik handienak eragiten dituzten aldagaiak.

- 15-24 urtekoak dira euskarazko musika gehien entzuten dutenak (% 73,7); 45-54koak, berriz, gutxien entzuten dutenak (% 50,6).
- Gizonek (% 62,5%) emakumeek baino gehiago entzuten dute, % 54,1.

- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da euskarazko musika entzuten dutenen pisua: % 48,4 oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean eta % 65,7 unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.
- 50 mila biztanlez gorako herrietan entzuten dute euskarazko musika gutxien: % 44,8. Beste muturrean daude 10 mila biztanlez beherakoak: % 65,6.

Musika euskaraz

IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Musika euskaraz

LURRALDE-EREMUA



Gipuzkoako biztanleak dira euskarazko musika gehien entzuten dutenak (% 66,6), Bizkaiarekiko diferentzia nabarmenarekin (% 55,1) eta Arabarekiko (% 51,7) are handiagoarekin.




Bertsolaritza

Arte eszenikoen publikoaren artean⁵ % 19,6 joan da bertso-saioren batera. Ia bost puntuko jaitsiera izan da 2018ko datuarekiko (% 24,2). Euskal hiztunekiko, txikiagoa da jaitsiera, bi puntukoa: % 37,5etik % 35,6ra.

Biztanleria osoarekiko, % 13,9 joan da bertso-saioren batera —2018an baino lau puntu gutxiago—.

57. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan bertso-saioren batera joan diren pertsonak, biztanleria-taldean arabera (2018-2023) (%).



- Gazteenen adin-tartean (15-24) dago bertso-saioetara joaten direnen pisurik handiena (% 27,4), beste adin-tarteekin alderatuta. 64 urtetik gorakoaren artean % 17,9koa da pisua.
- 10 mila biztanletik beherako herrietan % 25,2koa da bertso-saioetara joaten direnen pisua.

50 mila biztanlez gorakoetan, aldiz, % 9,7koa.

- Unibertsitate-ikasketak dituztenen artean da handiena bertso-saioetara joaten direnen pisua (% 23). Oinarrizko ikasketak dituztenen artean (Batxilergoa, OHO edo DBH eginda), aldiz, % 13,2.

Bertsolaritza			
IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Bertsolaritza	
LURRALDE-EREMUA	
	Gipuzkoan da handiena bertso-saioetara joaten direnen pisua (% 23,1), Bizkaiaren (% 18,1) eta Arabaren (% 17,5) aurretik.

5. Azken 12 hilabeteetan, gutxienez ikuskizun batera joan diren pertsonak (lagin osoaren % 70,9).

6.3.2. Ikus-entzunezkoak euskaraz

Zinema euskaraz


Azken 12 hilabeteetan zinemara behin ala gehiagotan joan direnak (% 63,4) aintzat hartuta, ikusi nahi duten filma euskaraz proiektatzen denean, % 27,7k aukeratzen du bertsio hori, beti edo askotan.

Biztanleria osoarekiko, % 17,2koa da portzentaje hori —2018an baino puntu bat gutxiago, galderak guztiz alderagarriak ez badira ere—.

Euskal hiztunen kasuan, %41,6koa da portzentaje hori, 2018an baino lau puntu baxuagoa (% 45,3).

58. grafikoa.

Zinema euskaraz nahiago duten pertsonak, biztanleria-taldearen arabera (2018-2023) (%).



Zinemara behin ala gehiagotan joan direnen artean, aztertutako aldagai guztiek eragiten dituzte aldeak, euskarazko bertsioak lehenesteari dagokionez.

- Zenbat eta gazteagoak izan herritarrak, orduan eta altuagoa da euskarazko bertsioak lehenesten dituztenen pisua: 15-24 urtekoen artean % 39,4 eta 64 urtetik gorakoek artean % 20,5.
- Unibertsitate-ikasketak dituztenak dira beti edo askotan euskarazko bertsioak lehenesten

dituztenen pisurik handiena dutenak:

% 35. Oinarrizko ikasketak dituztenen artean (Batxilergoa, OHO edo DBH eginda), berriz, % 14,4.

- Hamar mila biztanlez azpiko herrietan eta 10-25 mila artekoetan dute beti edo askotan euskarazko bertsioak lehenesten dituztenen pisurik handiena: % 35,4, bi kasuetan. 50 mila biztanletik gorakoetan, aldiz, % 16,6.
- Gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino handiagoa da euskarazko bertsioak lehenesten dituztenen pisua: % 31 eta % 24,2, hurrenez hurren.



Zinema euskaraz			
IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Zinema euskaraz	
LURRALDE-EREMUA 	Gipuzkoan nabarmentzen da euskarazko bertsioak beti edo askotan lehenesten dituztenen pisua (% 38,7), Arabarekiko (% 21,8) eta Bizkaiarekiko (% 22,2) alde handiarekin.

Irratia eta telebista euskaraz

Hedabideen kontsumitzaileen artean — biztanleen % 72,7k irratia eta % 84,4k telebista—, euskarazko irratia euskarazko telebistak baino hartzaile gehiago ditu: % 31,5ek entzuten du euskarazko irratia eta % 23,6k ikusten du euskarazko telebista. 2018ko datuekiko, igoera txiki bat izan du euskarazko irratia (% 29,9 zen orduan) eta jaitsiera txiki bat euskarazko telebistak (% 26).


Biztanleria osoarekiko, % 22,9k entzuten du irratia euskaraz eta % 19,9k ikusten du

telebista euskaraz. 2018arekiko, behera egin du bigarrenak —hedabide horien kontsumo orokorra kontuan hartuta, hizkuntzari erreparatu gabe, alderantzizkoa gertatzen da: biztanleen % 71,8k ikusten du telebista egunero, eta % 56,5ek entzuten du irratia—.

Euskal hiltunen artean, hiru laurdenek entzuten dute irratia euskaraz (% 74,9) eta hamarretik seik (% 59,6) telebista euskaraz. Euskarazko irratia kontsumoak bost puntu egin du gora.

59. grafikoa.

Irratia eta telebista euskaraz kontsumitzen dituzten pertsonak, biztanleria-talde arabera (2018-2023) (%).



Hedabideen kontsumitzaileen artean, ondorengo aldagaiek eragiten dituzte diferentziarik handienak:

- Zenbat eta gazteagoak izan herritarrak, orduan eta altuagoa da euskarazko irratia zein telebista kontsumitzen dituztenen pisua: 15-24 urtekoen artean % 64,5 eta % 37,8, hurrenez hurren. 64 urtetik gorakoen artean, aldiz, % 20,8 eta % 18,4, hurrenez hurren.
- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da euskarazko irratia

zein telebista kontsumitzen dituztenen pisua: oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean % 17,4 eta % 15,4, hurrenez hurren; unibertsitate-ikasketak dituztenen artean % 42,7 eta % 31,1, hurrenez hurren.

- 10-25 mila biztanle arteko herriek dute euskarazko irratia zein telebista kontsumitzen dituztenen pisurik handienak: % 47,2 eta % 36,3, hurrenez hurren. Beste muturrean daude 50 mila biztanlez gorakoak: % 15,8 eta % 11,5, hurrenez hurren.

Irratia eta telebista euskaraz			
IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Irratia eta telebista euskaraz	
LURRALDE-EREMUA	
	Euskarazko irratia zein telebista entzuten dutenen pisua askoz ere altuagoa da Gipuzkoan: % 47,3 eta % 36,4, hurrenez hurren—% 19,7 eta % 12,4 Araban, eta % 24,9 eta % 18,5 Bizkaian—.

6.3.3. Irakurketa euskaraz

Liburuak euskaraz

Irakurleen⁶ % 13,5ek euskarazko liburuak irakurri ditu, gutxieneko maiztasun batekin, azken hiru hilabeteetan. 2018arekiko jaitsiera bat dago, beraz, orduan % 19,1ekoa baitzen portzentaje hori. Gainerako biztanleria-taldean azterketan ere jaitsierak antzematen dira 2018tik 2023ra.

Biztanleria osoarekiko, % 11,1 da euskarazko libururen bat irakurri duena —2018an % 14,1—.


Euskal hiltunen artean % 33,7k irakurri du euskarazko libururen bat —2018an % 45ek—.

6. Azken 12 hilabeteetan gutxienez liburu bat irakurri dutenak (lagin osoaren %75,9).



60. grafikoa.

Euskarazko irakurketa-maiztasuna azken 3 hilabeteetan, biztanleria-taldeen arabera (2018-2023) (%).



Irakurleen artean aldagaien araberako azterketa eginez, ikasketa-maila eta udalerrriaren tamaina nabarmentzen dira:

- Zenbat eta gazteagoak izan herritarrak, orduan eta handiagoa da euskarazko liburuak irakurri dituztenen pisua: 15-24 urtekoen artean % 35,4; 64 urtetik gorakoan, % 8,8.
- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da euskarazko liburuak irakurri dituztenen pisua: % 6 oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean; % 23,7 unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.
- 10 mila biztanlez beherako herrietan dago euskarazko liburuak irakurri dituztenen pisurik handiena: % 28,2. 50 mila biztanlez gorakoetan, aldiz, % 7,1.

Irakurketa euskaraz			
IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Irakurketa euskaraz	
LURRALDE-EREMUA 	Gipuzkoan altuagoa da euskarazko liburuak irakurri dituztenen pisua: % 19 —Araban % 10,3 eta Bizkaian % 11,2—.

Euskarazko egunkariak eta aldizkariak

Hedabideen kontsumitzaileen artean —lagin osoaren %68,5— gehixeago dira euskarazko aldizkari irakurleak euskarazko egunkari irakurleak baino: % 22,7 eta % 21,3, hurrenez hurren. 2018ko datuekiko igoera izan da, batez ere, aldizkarietan —% 19 eta % 19,2, hurrenez hurren—.

Biztanleria osoarekiko, % 14,6k irakurtzen ditu egunkariak euskaraz eta % 5,9k aldizkariak euskaraz. 2018koen oso antzekoak dira datu horiek aldizkariari dagokienez eta pixka bat hobeak egunkariari dagokienez. Hizkuntzari


erreparatu gabe biztanleria orokorrean antzematen den joeraren oso bestelakoa da hori. Izan ere, biztanleriaren % 69k egunero edo astero irakurtzen ditu egunkariak. Aldizkariak, berriz, % 25,7k. Beste komunikabide batzuekin gertatzen den bezala, badirudi hizkuntzaren ezagutzari ez dagozkion beste arrazoi batzuk daudela, eskaintzarekin zerikusia izan dezaketenak.

Biztanleria euskal hiztuna bakarrik kontuan hartuta, % 56,1ek irakurtzen ditu euskarazko egunkariak eta % 52,4k euskarazko aldizkariak —2018an % 48,8 eta % 44,6 hurrenez hurren—.



61. grafikoa.

Euskarazko egunkariak eta aldizkariak kontsumitzen dituzten pertsonak, biztanleria taldeen arabera (2018-2023) (%).



Hedabideen kontsumitzaile direnen artean, adina, ikasketa-maila eta sexua dira diferentziarik handienak eragiten dituzten aldagaiak:

- Gazteenek kontsumitzen dituzte gehien euskarazko egunkariak eta aldizkariak: 15-24 urtekoen artean % 47,3 eta % 41,4, hurrenez hurren. 64 urtetik gorakoen artean, berriz, % 11,4 eta % 15,4.
- Unibertsitate-ikasketak dituztenek kontsumitzen dituzte gehien euskarazko egunkariak eta aldizkariak: % 30,5 bietan. Oinarrizko ikasketak ez dituztenen artean, aldiz, % 8,2 eta % 13,3.
- Biztanle gutxien dituzten herrietan gainontzekoetan baino altuagoa da euskarazko egunkariak eta aldizkariak irakurtzen dituztenen pisua: 10-25 mila biztanle artean % 32,1 eta % 36,2, hurrenez hurren; 10 mila biztanletik beherakoen artean, % 29,3 eta % 31,6, hurrenez hurren. Aldiz, 50 mila biztanletik gorako herrietan, % 10,2 eta % 7,3, hurrenez hurren.
- Gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino altuagoa da euskarazko egunkariak eta aldizkariak irakurtzen dituztenen pisua: % 25 eta % 27, hurrenez hurren —% 17 eta % 8 emakumezkoen artean—.

Euskarazko egunkariak eta aldizkariak			
IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA


Euskarazko egunkariak eta aldizkariak	
LURRALDE-EREMUA 	Gipuzkoan nabarmen handiagoa da euskarazko egunkariak (% 31,9) eta aldizkariak (% 35) irakurtzen dituztenen pisua. Bizkaia (% 16,3 eta % 14,9, hurrenez hurren) eta Araba (% 14,5 eta % 17,5, hurrenez hurren), atzetik daude antzerako ehunekoekin.

6.3.4. **Laburpen konparatiboa**

Praktiken arteko zeharkako begiradari erreparatuz, ikus daiteke biztanleria osoan intzidentzia handiena duen euskarazko praktika musika entzutea dela (% 48,8). Euskal hiztunen kasuan, % 88,7koa da portzentaje hori, 2018an baino sei puntu altuagoa.

Antzerki-ikuskizunetara joatea (% 19,1) eta zinemara joatea (% 17,2) daude ondoren. Zinemari dagokionez, ikusi nahi den filmaren euskarazko bertsioa eskura egonik zein lehenesten den izan da galdera. Irakurketa dago azken tokian, % 11,1ko intzidentziarekin –euskal hiztunak kontuan hartuz, % 33,7–.

62. grafikoa.
Euskarazko kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren ranking-a, biztanleria-taldearen arabera (2018-2023) (%).






Irudi osoa eskaintzeko, euskarazko zenbait praktiketarako 2008-2018-2024 aldiko bilakaera historikoa ahalbidetzen duten galderak biltzen zituen inkestak euskarazko praktika batzuetarako.

Galdera horien emaitzen arabera, euskarazko antzerkiak igoera handia izan zuen 2008tik 2018ra, eta mantentze bat ondoren. Euskarazko irakurketak beheranzko joera darama. Euskarazko musikaren kontsumoa igo egin zen 2008 eta 2018 artean, baina beste hainbeste jaitsi da ondoren. Bertsolaritzak ere behera egin du 2018tik 2023ra, baina 2008ko datuaren gainetik dago.

63. grafikoa.

Euskarazko kultura-praktiken bilakaera, biztanleria osoaren artean (2008-2018-2023) (%).



06. 4.

Euskarazko praktika digitalak


6.4.1. Euskararen erabilera Interneten eta online zerbitzuetan

Interneten eta online zerbitzuen erabiltzaileen – biztanleriaren % 83,9 – % 13,1ek euskara (solik edo gaztelaniarekin batera) erabiltzen du horretarako.

Portzentaje hori % 31,8raino igotzen da euskal hiztunen kasuan.

64. grafikoa.

Internet eta online zerbitzuen erabilera-hizkuntza (%).



Unibertsoa: Internet eta online zerbitzuen erabiltzaileak.

Adina eta ikasketa-maila dira eraginik handiena duten aldagaiak:

- Zenbat eta gazteagoak izan herritarrak orduan eta altuagoa da Internet eta online zerbitzuak euskaraz erabiltzen dituztenen pisua: 15-24 urtekoen artean % 21,2 eta 64 urtekoen artean % 7.
- Zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila orduan eta handiagoa da Internet eta online

zerbitzuak euskaraz erabiltzen dituztenen pisua: % 6,3 oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean eta % 18,2 unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.

- 10-25 mila biztanle arteko herrietan besteetan baino handiagoa da Internet eta online zerbitzuak euskaraz erabiltzen dituztenen pisua: %21; aldiz, 50 milatik gora biztanle dituztenetan %6,3.



Euskararen erabilera Interneten eta online zerbitzuetan			
IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Euskararen erabilera Interneten eta online zerbitzuetan	
LURRALDE-EREMUA 	Gipuzkoan neurri handiagoan baliatzen da euskara Internet edo online zerbitzuak erabiltzeko: % 19. Urrutiago daude Bizkaia (% 10,5) eta Araba (% 9,9).


6.4.2. Euskarazko sare sozialak

Sare sozialak kultura-jardueren inguruko helburuekin lotuta erabiltzen dituztenen artean — biztanleen % 29,3—, % 19,1ek erabiltzen du

euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera), horietan. Euskal hiztunen artean, % 39,5ek. Eta biztanleria osoarekiko, % 5,6k.

65. grafikoa.

Sare sozialak kultura-jardueren inguruko helburuekin erabiltzen dituztenen erabilera hizkuntza (%).



Unibertsoa: sare sozialak kultura-jardueretarako erabiltzen dituztenak.

Sare sozialak kultura-jardueren inguruko helburuekin lotuta erabiltzen dituztenen artean aldagaien arabera azterketa eginez, ikasketa-maila, adina eta udalerraren tamaina nabarmendu daitezke:

- Zenbat eta gazteagoak izan herritarrak orduan eta gehiago dira sare sozialak euskaraz erabiltzen dituztenak: 15-24 urtekoen artean % 27,4 eta 64 urtetik gorakoek, % 10,4.

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenek erabiltzen dituzte gehien euskaraz, diferentzia handiarekin: % 29,4.
- Herri txikietan erabiltzen dira gehien sare sozialak euskaraz: 10 mila biztanlez beherakoetan % 25,6 eta 10-25 mila artekoetan % 27,8. 50 mila biztanlez gorakoetan, berriz, % 7,5.

Euskarazko sare sozialak			
IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Euskarazko sare sozialak	
LURRALDE-EREMUA 	Gipuzkoan erabiltzen da neurri handiagoan euskara sare sozialetan (% 28,6). Bizkaia bigarren tokian dago (%14,9) eta jarraian Araba (% 13,5).



06. 5.

Amateur mailako sormen- praktikak: bertsolaritza


Arte- edo kultura-jardueraren batean modu aktiboan parte hartzen duten pertsonen artean⁷, % 1,5ek praktikatu du bertsolaritza. 2018an baino puntu bat gutxiago da hori.

Euskal hiztunen artean % 2,7ra igotzen da portzentaje hori —2018an baino hiru puntu pasa gutxiago—.

Biztanleria osoarekiko, % 0,7k egin du bertsolaritza, ia 2018an bezala.

66. grafikoa.

Bertsolaritza praktikatzen duten pertsonak, biztanleria-taldean arabera (2018-2023) (%).




7. Azken 12 hilabeteetan, gutxienez behin amateur mailako praktikaren bat egin dutela adierazi duten pertsonak (lagin osoaren % 43,3)

Bertso-saioetarako asistentziak pisu esanguratsua du, eta hazi da 2008tik; amateur mailako bertsolaritzako praktikaren bilakaerak,

aldiz, kontrako joera izan du, jaitsi egin da pixka bat baina 2018tik ez da aldaketarik izan.

67. grafikoa.

Biztanleria osoan bertsolaritza praktikatzen duten pertsona kopuruaren bilakaera (2008- 2018-2023) (%).





06. 6.

Euskarazko parte-hartzearen arrazoi subjektibo nagusiak

Euskarazko kultura-jardueretan parte-hartzeko zein arrazoi duten galdetu zaie parte hartzen duten herritarrei —biztanleria osoaren %22,1—. Tokiko eta euskarazko kultura babesteko era bat dela nagusitzen da, modu nabarmenean: % 43,5. Hizkuntza edozein izanik ere

interesgarriak iruditzen zaizkion kultura-jardueretara joaten dela adierazi du % 21,8k. Ranking-aren beste muturrean, euskarazko kultura-jarduerekin gehiago gozatzen duela aipatu du % 3,9k.

68. grafikoa.

Euskarazko parte-hartze kulturala azaltzeko arrazoi subjektiboen ranking-a (%).



Unibertsoa: euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen dutenak.

- Tokiko eta euskarazko kultura babesteko modu bat da: 15-24 urtekoen artean garrantzi berezia hartzen du, % 52,6. Hamar mila biztanlez beherako herrietan besteetan baino pisu handiago du: %48,4.
- Hizkuntza edozein izanda ere interesgarriak iruditzen zaizkidan jarduera kulturaletan parte hartzen dut: 50 mila biztanletik gorako herrietan (% 31,6) eta 55-64 urtekoen artean (% 29,9) duen pisua nabarmentzen da.
- Identifikatuta sentitzen naiz euskarazko kultura-jarduerak jorratzen dituzten gaiekin: 45-54 urte artean hartzen du pisurik handiena, % 29,1. Jarraian 25-50 mila arteko biztanle kopurua duten herrietan (%24) eta oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean (ez zuen eskuratu OHO, DBH edo Oinarritzko Batxilergoa), % 24. Halaber, gizonentzat garrantzi handiagoa du emakumeentzat baino, % 21,3 eta % 15, hurrenez hurren.
- Euskara da nire ohiko hizkuntza: 64 urtetik gorakoen artean (% 22,6) eta oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean (% 11) hartzen du garrantzi berezia.
- Gehiago gozatzen dut euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen: hiriburuetan hartzen du pisurik handiena, % 4,9; 25-44 urte artean ere hartzen du garrantzia (% 4,8).

Euskarazko parte-hartzearen arrazoi subjektibo nagusiak			
IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Euskarazko parte-hartzearen arrazoi subjektibo nagusiak	
LURRALDE-EREMUA 	Lurraldeen araberako aldeak txikiak dira. Tokiko eta euskarazko kultura babesteko modua izateak garrantzi apur bat gehiago hartzen du Bizkaian (% 44,4), euskarazko kultura-jarduerak jorratzen dituzten gaiekin identifikatuta sentitzeak Araban (% 20,5) eta, euskara da nire ohiko hizkuntza (% 9,6) eta hizkuntza edozein izanik ere interesgarriak iruditzen zaizkien jarduera kulturaletan parte-hartzeak Gipuzkoan (% 24).



06. 7.


Informazio-kanalak

Euskarazko jarduera kulturaletan parte hartzen dutenak kontuan hartuta, Internet eta sare sozialak dira euskarazko jardueren inguruan informatzeko kanal nagusia (% 37,7), ahoz

ahokoa gaindituz (% 30). Kartelak edo paperezko publizitatea daude hirugarren tokian (% 17,1) eta hedabideak laugarrenean (% 13,1). 2018ko datuekiko, azken biek indarra galdu dute, aurrekoen aldean.

69. grafikoa.

Euskarazko kultura-eskaintza ezagutzeko informazio-kanal nagusien ranking-a (2018- 2023) (%).



Unibertsoa: euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen dutenak.

Aldagaien araberako azterketan ondorengo nabarmendu daiteke:

- Internet eta sare sozialak unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean (% 41,1), 50 mila biztanlez gorakoetan (% 55,4) eta adin tarte gazteenetan –15-24 urtekoetan % 53,3 eta 25-34 urtekoetan % 53,2 – nagusitzen dira.
- Kartelak edo paperezko publizitatea bereziki 64 urtetik gorakoen artean (% 31,8) eta 10 mila biztanlez beherako herrietan (% 25,9) nabarmentzen dira.
- Hedabideak oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean (% 19,4) eta bereziki adin tarte nagusienetan –55-64 urtekoetan % 23,3 eta 64 urte baino gehiagokoetan % 25,8– nagusitzen dira.
- Ahoz ahokoa, lagunen edo familiarren bidez, erdaldunen artean (% 47,5) eta oinarritzko ikasketak ez dituztenen artean (% 40,4) edo Goi Mailako Batxilergoa, LOGSE, Batxilergoa, UBI dutenen artean (% 40).

Informazio kanalak				
IKASKETA-MAILA	EUSKARA JAKITEA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Informazio kanalak	
LURRALDE-EREMUA 	Araban Internetek eta sare sozialek dute beste bi lurralde historikoetan baino garrantzi handiagoa (% 42,5), Bizkaian kartelak eta paperezko publizitateak (% 19,3) eta Gipuzkoan hedabideek (% 17,4).



06. 8.


Euskarazko eskaintzari buruz

Euskarazko kultura-eskaintzari buruzko iritziak bildu dira, baieztapen jakin batzuen inguruko adostasun-mailaz galdetuz euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen duten herritarrei (lagin osoaren % 22,1). % 72,1ek beste hizkuntza batzuetako eskaintza euskarazkoa baino gehiago baloratzen dela adierazi du, ia beste horrenbestek (% 71,4) euskaraz dauden kultura-jarduerak ez direla nahikoa.

Herritarren erdia baino gehiagok uste du euskarazko kultura-jarduerak haurrei eta gazteei zuzenduta daudela, batez ere (% 54). Erdia baino gutxiagok, % 47,1ek, euskaraz badaudela gustu guztientzako kultura-jarduerak, eta % 32k zaila dela euskarazko kultura-jarduerari buruzko informazioa lortzea.

70. grafikoa.

Euskarazko kultura-eskaintzari buruzko baieztapenekiko adostasuna (%).



Unibertsoa: euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen dutenak.

Aldagaien araberako azterketan nabarmenduko genuke:

- Euskaraz dauden kultur jarduerak ez direla nahikoak neurri handiagoan adierazi dute gazteenek (% 84,5), Goi Mailako Batxilergoa, LOGSE Batxilergoa, UBI edo Lanbide Heziketako edo unibertsitate-mailako ikasketak dituztenek (% 72,2, % 72,5 eta % 71,7, hurrenez hurren), 25-50 mila biztanle arteko herrietan (% 79,5).
- Euskaraz gustu guztientzako kultur jarduerak daudela 64 urtetik gorakoek (% 57,8), oinarritzko ikasketak ez dituztenek (% 58,8).
- Beste hizkuntzetako eskaintza euskarazkoa baino gehiago baloratzen dela 15-24 urtekoek eta 25-34 urtekoek (% 80,2 eta % 80,1, hurrenez hurren), Goi Mailako Batxilergoa, LOGSE Batxilergoa, UBI ikasketak dituztenek (% 78).
- Euskarazko kultur jarduerari buruzko informazioa lortzea zaila dela adinez gazteenek (% 51, 8) eta oinarritzko ikasketak ez dituztenek (% 48,1).
- Euskarazko kultur jarduerak batez ere haurrei eta gazteei zuzenduta daudela gazteenek (% 68), hiriburuetakoe eta 50 mila biztanlez gorako udalerrietakoek (% 62,2 eta % 60, hurrenez hurren), Goi Mailako Batxilergoa, LOGSE Batxilergoa, UBI ikasketak dituztenek (% 66,2) eta emakumezkoek (% 57,7).

Euskarazko eskaintzari buruz			
IKASKETA-MAILA	ADINA	SEXUA	UDALERRIAREN TAMAINA

Euskarazko eskaintzari buruz	
LURRALDE-EREMUA 	Euskaraz dauden kultur jarduerak ez direla nahikoak neurri handiagoan adierazi dute Araban: % 76,1 –% 72,5 Bizkaian eta % 69 Gipuzkoan—. Euskaraz gustu guztientzako kultur jarduerak daudela Bizkaian: % 50,5 –% 40 Araban eta % 45,8 Gipuzkoan—. Euskarazko kultur jarduerari buruzko informazioa lortzea zaila dela Bizkaian: % 36 –% 34,9 Araban eta % 26,8 Gipuzkoan—. Euskarazko kultur jarduerak batez ere haurrei eta gazteei zuzenduta daudela Araban: % 63,2 –Bizkaian % 54,6 eta Gipuzkoan % 50,5—.



06. 9.


Eskaintzaren mugak

Hizkuntza behar beste ez menderatzea da euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen ez dutenen muga nagusia (% 59,1). Nolanahi ere, euskal hiztunak soilik aintzat hartuz, kultur-

jardueretikiko interes-falta da arrazoi nagusia (% 22,5), egungo eskaintzaren erakargarritasun-faltaren (% 20,8) aurretik.

71. grafikoa.

Eskaintzaren muga nagusiak (%).



Unibertsoa: euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen ez dutenak.

Aldagaien araberako azterketan ondorengo diferentziak antzeman daitezke:

- Kultura-jarduerak oro har ez zaizkiela interesgarriak iruditzen oinarrizko ikasketak ez dituztenek (% 21,2), 15-24 urte artekoek (% 17), 10-25 mila biztanle arteko herrietakoek (% 20,6) eta gizonezkoek (% 14,7).
- Euskarazko kultura ez zaiela interesatzen: 15-24 urtekoek (% 6,3) eta 50 mila biztanletik gorako herrietakoek (% 4,9).
- Inguruan euskarazko eskaintza mugatua

dela: 15-24 urtekoek (% 15,6).

- Ez daukatela norekin joan: 15-24 urtekoek (% 5,2).
- Egungo euskarazko eskaintza ez dela erakargarria diote zenbat eta gazteago izan: 15- 24 urtekoek (% 23,3) eta 25-34 urte artekoek (% 18,8). Halaber, unibertsitate-mailako ikasketak dituztenek (% 10,8).

Eskaintzaren mugak

LURRALDE-EREMUA



Hizkuntza behar beste ez menderatzea Araban eta Bizkaian nabarmentzen da: % 66,3 eta % 62,2, hurrenez hurren —% 49,6 Gipuzkoan—. Kultura-jarduerak oro har ez interesatzea Gipuzkoan: % 18,7 —% 6,1 Araban eta % 9,3 Bizkaian—. Zehazki euskarazko kultura ez interesatzea Araban: % 4,5 —% 3 Bizkaian eta % 2,4 Gipuzkoan—. Euskarazko kultura interesatu baina egungo eskaintza ez zaie erakargarria iruditzen Gipuzkoan: % 9,5 —% 6,4 Araban eta % 6 Bizkaian—.

Euskal
Autonomia
Erkidegoko
parte-hartze
kulturalari
buruzko
inkesta

Eranskinak

Eranskinen aurkibidea

A. Gurutzaketa-grafikoak	114
O1. Kulturarekiko jarrera orokorrak	114
Kultura-informazio maila	115
Parte-hartze kulturalerako motibazioak	116
O2. Parte-hartze kulturala hartzaile gisa	119
Arte eszenikoak eta musika	120
Zinemara joatea	125
Irakurtzea	128
Hedabideak	134
Museoak eta ondare kulturala	142
O3. Sormenarekin lotutako parte-hartze kulturala	146
Amateur mailako praktika artistikoak	147
Arte trebakuntza	148
Kultura elkarteetan parte-hartzea	149
O4. Praktika digitalak	150
Internet erabiltzea	151
Sare sozialak parte-hartze kulturalean	153
O5. Euskarazko parte-hartze kulturalak	154
Euskarazko parte-hartze orokorra	155
Euskarazko kultura ohiturak	156
Euskarazko praktika digitalak	165
Amateur mailako sormen-praktikak: bertsolaritza	167
B. Inkestaren fitxa-teknikoa	168



A.

Gurutzaketa-grafikoak


O1.

Kulturarekiko jarrera orokorrak

Kultura-informazio maila

72. grafikoa.

Kultura-informazio mailaren auto-balorazioa, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (1etik 4rako balorazio-eskala batean, zeinetan 1 ezer ez den eta 4 asko den).






Parte-hartze kulturalerako motibazioak


73. grafikoa.

Kultura praktiketarako motibazioak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



74. grafikoa.


Amateur mailako praktiketarako motibazioak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).





75. grafikoa.

Praktika digitalerako motibazioak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



O2.


Parte-hartze kulturala hartzaile gisa



Arte eszenikoak eta musika


76. grafikoa.

Pertsonak, azken 12 hilabeteetan ikuskizun eszenikoetara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



77. grafikoa.


Pertsonak, azken 12 hilabeteetan antzerkira joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).





78. grafikoa.

Pertsonak, azken 12 hilabeteetan dantzara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).




79. grafikoa.

Pertsonak, azken 12 hilabeteetan kontzertuetara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).


GUZTIRA




ADMINISTRAZIO EREMUA




SEXUA




ADIN-TARTEA




UDALERRIAREN TAMAINA



AMAITUTAKO IKASKETA MAILA




EUSKARAREN EZAGUTZA



1-3 aldiz
4 aldiz edo gehiago
Inoiz ez

**80. grafikoa.**


Pertsonak, grabatutako musika entzuten duen maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



Zinemara joatea

81. grafikoa.


Pertsonak, azken 12 hilabeteetan zinemara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






82. grafikoa.

Pertsonak, bideojokoak erabiltzen dituzten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



83 . grafikoa.

Bideojokoen hizkuntza, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






Irakurtzea


84. grafikoa.

Pertsonak, azken 12 hilabeteetan irakurri duten liburu kopurua, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



85. grafikoa.


Azken 3 hilabeteetan irakurri duten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






86. grafikoa.

Irakurketa-euskarriak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



87. grafikoa.


Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegira joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






88. grafikoa.

Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegietarako kultura-jardueretara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



89. grafikoa.

Liburu edo film digitalen mailegua, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






Hedabideak


90. grafikoa.

Pertsonak, egunkariak irakurtzen dituzten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



91. grafikoa.


Pertsonak, aldizkariak irakurtzen dituzten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






92. grafikoa.

Pertsonak, egunkariak euskarri digitalean irakurtzen dituzten maiztasuna, gurutzaketa aldagai ezberdinen arabera (%).



93. grafikoa.


Pertsonak, aldizkariak euskarri digitalean irakurtzen dituzten maiztasuna, gurutzaketa aldagai ezberdinen arabera (%).






94. grafikoa.

Pertsonak, telebista ikusten duten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



95. grafikoa.


Pertsonak, irratia entzuten duten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






96. grafikoa.

Pertsonak, telebista modu digitalean ikusten duten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).




97. grafikoa.

Pertsonak, irratia modu digitalean entzuten duten maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).




**Museoak eta ondare kulturala****98. grafikoa.**

Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan museoetara joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



99. grafikoa.


Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan arte-galerietara joan diren maiztasuna, gurutzaketa aldagai ezberdinen arabera (%).






100. grafikoa.

Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan monumentu, eraikin edo toki historikoren batera joan diren maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



101. grafikoa.

Museo, arte-galeria eta monumentu, eraikin edo toki historikoetara joateko arrazoi nagusia, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






O3. Sormenarekin lotutako parte-hartze kulturala

Amateur mailako praktika artistikoak

102. grafikoa.

Azken urtean amateur mailako kultura-praktikaren bat egin duten pertsonak, gurutzaketa aldagai ezberdinen arabera (%).






Arte trebakuntza


103. grafikoa.

Ikastetxetik edo instituziotik kanpo, artearekin edo kulturarekin lotuta jardueraren bat egiteko maiztasuna, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



Kultura elkarteetan parte-hartzea

104. grafikoa.
Kultura-elkarte batean edo gehiagotan parte hartzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






O4. Praktika digitalak

Internet erabiltzea


105. grafikoa.

Internet eta online zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



**106. grafikoa.**


Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



Sare sozialak parte-hartze kulturealean

107. grafikoa.

Kultura-praktikek sare sozialetan duten intzidentzia, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






05.

Euskarazko parte-hartze kulturalak

Euskarazko parte-hartze orokorra


108. grafikoa.

Euskarazko parte-hartze orokorra, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).




**Euskarazko kultura ohiturak****109. grafikoa.**

Azken 12 hilabeteetan gutxienez behin euskarazko antzezlanen bat ikustera joan diren pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



110. grafikoa.

Euskal musikariak edo musika-taldeak entzuten dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).







111. grafikoa.

Azken 12 hilabeteetan bertso-saioren batera joan diren pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).

GUZTIRA




ADMINISTRAZIO EREMUA



SEXUA




ADIN-TARTEA




UDALERRIAREN TAMAINA



AMAITUTAKO IKASKETA MAILA



EUSKARAREN EZAGUTZA




■ Arte eszenikoen publikoa
■ Biztanleria, guztira

0 20 40 60 80 100

112. grafikoa.


Zinema euskaraz nahiago duten pertsonak (ikusit nahi duten filma euskaraz proiektatzen denean bertsio hori beti edo askotan aukeratzen dutenak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






113. grafikoa.

Irratia euskaraz kontsumitzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



114. grafikoa.


Telebista euskaraz kontsumitzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).






115. grafikoa.

Euskarazko irakurketa azken 3 hilabeteetan, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



116. grafikoa.


Euskarazko egunkariak kontsumitzen dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).





117. grafikoa.


Euskarazko aldizkariak kontsumitzen dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



Euskarazko praktika digitalak

118. grafikoa.


Internet eta online zerbitzuen euskarazko erabilera, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).





119. grafikoa.


Sare sozialen euskarazko erabilera, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).



Amateur mailako sormen-praktikak: bertsolaritza

120. grafikoa.

Bertsolaritza praktikatzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%).





B.

Inkestaren fitxa-teknikoa

Biztanleria- eta administrazio-eremua	Euskal Autonomia Erkidegoa
Denbora-eremua	2023ko abendua-2024ko martxoa
Laginaren diseinua	Ausazko laginketa geruzatua esleipen ez-proportzionalarekin
Tamaina	4.700
Lagin-akatsa	$\pm 1,46$ (Kulturaren Euskal Behatokiaren webgunean eskuragarri dagoen txosten metodologikoan kontsulta daiteke lagin-akatsaren estimazioa gurutzaketa-aldagaiak osatzen dituzten kategorietarako)
Konfiantza-maila	% 95,5 gehieneko indeterminazioko kasuan ($p=q=\% 50$)
Geruzak eta kuotak	• Administrazio-eremuak • Udalerraren biztanle-tamaina • Sexua • Adina • Euskararen ezagutza
Elkarriketa egiteko metodoa	Ordenagailuz lagundutako telefono bidezko elkarriketa
Haztapena	Datuak haztatuta daude, biztanleria behar bezala ordezkatzeko, lurralde historikoaren (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), udalerraren tamainaren, adinaren eta euskararen ezagutzaren (euskal hiztunak edo ez) arabera orekatuz.

